

URDAIBAI

2025
zenb.º 44
.....

© MAGAZINE



ARROLA, HISTORIAK LOTUTAKO MUGARRIA

| URDAIBAICO TXOKO GOGOKOENAK

| MUXIKA ESPIRITUALA

| ALKARRIZKETA, AURELIO BILBAO, BIZKAIKO
KOFRA DIEN FEDERAZINOKO IDAZKARIA

| ITSAS KABRA, ITSASOKO ESKORPIOIA

| MANU LEGUINECHEREN OIHARTZUNA
ARRATZUN

| SALIKORNIA, PADURAKO LANDARE
ALTXORRA



Partida hau Kutxabanken Visa Korner txartelarekin ● irabaziko duzu.



12-30 urte bitartean Korner Visa Debit eta 18-30 urte bitartean Korner Visa Dual txartelak kontratatzeko aukera.

ERRESPETUA ETA SENTSAZINOAK

2015ean jaio zanetik Urdaibai Magazine jarraitu dauenak baki erabat sentsibilizatuta gagozala tokiko garapen kultural, sozial eta ekonomikoagaz, nortasunean eta iraunkortasunean oinarrituta. Bestela esanda, kulturarekiko, naturarekiko, ondare historikoarekiko, memoriarekiko... hau da, pertsonarekiko errespetuan oinarrituta. Zenbaki honetan, besteak beste, geure arrantza-sektoreari, geure ondare naturalari eta historikoari eta gerra-gatazken egiaiekiko konpromisoagaitik bakarra dan eta bere jatorria bihotzean eramaten eban kazetari ospetsu bati emoten deusagu balioa. Lerro hauetan zenbaki honi buruz zehaztasun gehiago aurreratuta geneukanean eta inprentara bialtzear gagozala iragarri da Guggenheim Urdaibai proiektua ez doala aurrera, eta beharrezko dirudi erreferentzia bat egitea. Persona baktoren irudimena bide desbardinetatik mobiduten da, bere esperientzien eta ezagutzaren arabera. 2021eko Guggenheim Urdaibai proiektuaren ideia aurkezpenak Norvegiako adibide bat ekartzen dau gogora, espazio natural handiak daukozen eta jasangarritasunean aurreratua dan herrialdea. Kistefos museoa ibai baten inguruko baso batean dago eta bertan arte garaikideak naturagaz bat egiten dau. Museoak urtean hilebete jakin batzuetan baino ez dauz atea edegitzen eta, beste balio askoren artean, bertan funtzionatzan eban eta iragana eta oraina lotzen dauzan zelulosa-fabrika zahar baten aztarnak kontserbetan dauz. Guggenheim Urdaibai proiektua garatzeari uko egin jakola jakitearen sentsazioetako bat da "www.kistefosmuseum.com" baten aukera galtzen ari gaitezkeela, mesedez bisitau online. Bisitatzearen esperientzia parebakoa da.

Urte Barri On!!!



ARGITARATZAILE

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangaiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus | tel: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU




Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

PUBLIKAZIOA: 2025. 12. 29



AURKIBIDE



04 ERREPORTAJEA. Arrola, historiak lotutako mugarrria

11 DANONARTEAN.

18 VISIT URDAIBAI. Zuen txoko gogokenak

22 ALKARRIZKETA. Aurelio Bilbao, Bizkaiko Kofradien Federazinoko Idazkaria

28 LEKUKO. Muxika Espirituala

31 KOLABORAZINOA. Ugaitz Gaztelu, Arkitekto Dokorea Ondarearen Egokitze Jasangarrian

32 KALERIK KALE. Manu Leguineche Udal Frontoian

36 SALTSA PORRU. Itsas kabra

40 BERDEAN. Salikornia

44 LABUR LABUR.

Arrola,

historiak lotutako mugarrria

534 metroko altueragaz, Arrola da Gastiburu mendiguneko punturik gorenena. Bere kokapen apartekoak lurraldearen 360°-ko ikuspegia eskaintzen dau. Panoramika ederra, geure historiako ondare bikaina gordetzen dauen tontorra.



Arrolako oppidumaren aztarnategi arkeologikoa. Argazkia: Nueva Europa

Arrola da mendiko izena. Izen bera dauke inguruan dagoen korta batzuk, inguruko bi baserrik, Arrolagoikoa eta Arrolabekoa, eta Burdin Aroko aztarnategi arkeologiko baliotsuak be

Arrola mendia bere inguruan altxatzen dan sekulako talaia da. Arratzuko belardiak menperatzen dauz mende-baldetik, Nabarnizko auzoak ekialdetik, Omako harana iparraldetik eta Mendata hegoaldetik. Altuerak eta kokapenak berezko zelata-profila emoten deutse gailurrari, mugarrri eder bat moduan altxatzen dana. Bertan bat egiten dabe Nabarniz, Arratzu eta Mendata udalerriek. Ur-baliabidez betetako bere mendi-magal zabaletatik, Uzendaerreka, Belendiz, Zubiate eta Gastiburu errekek jaiotzen dira, Golakoren emaria elikatzen dabenak. Arrola be baso-eremua da, eta, Bizkaia osoan gertatzen dan moduan, egur-ustiapenerako landakete estaltzen dabe gaur egun. Bertan, ibaiertzeko landarediaz babestutako zenbait eremu dagoz be.

Historikoki, XV. mendetik aurrera, mendiek, eta Arrola ez da salbuespena izan, etenbako borrokak eta liskarrak sortu dabez udalerrien eta jabeen artean. Gatazkaren arrazoia, kortak: abeltzaintza-tradizinoko zonaldeetako herri-mendietan mugatutako eremuak. Espazio horreen ezaugarri garrantzitsuenetako bat mugarriri jartzea zan, korten erdigunea eta mugak markatzen ebezen harriak.

Lursail partikularrak edo herri-lurrak mugatzen dabezen mugarrietatik aparte, badira herri baten jurisdikzioa mugakidearekiko noraino heltzen dan finkatzen dabenak be. Orokorrean, mugarriri horreek handiagoak izaten dira, eta, lekuko moduan, teilazko kaskoak izaten dabez. Barandiaranek berak adierazi ebanez, ohikoa zan be herri-eremuetako mugarriri horreek Neolito garaiko trikuharrien kokapenagaz bat etortzea.

Antropologo adituek aipatzen dabenez, Arrola eta Gastiburu inguruan 30 korta dagoz. Mugak markatzeko kontzeptu beraren pean, Arrolan harri luzanga bat dago eta kortarriak edo mugarriri ezin hobeto imitatzen dauz. Harri horrek Arratzu, Mendata eta Nabarniz udalerrien arteko muga markatzen dau.

Hiru herriak harro dagoz Arrola mendiaz eta 2024tik aurrera, urtero ospatzen dabe mendi hau hirurona izatea. Horrela, hiru herriek mendi martxa bat ospatzen dabe, *"Batzen gaituen harria"* izenpean. Egun horretan udalerri bakoitzetik abiatuta Arratzu, Mendata eta Nabarniz alkartzen diran trianguluraino mendi irteera egiten da. Arratzuarrik, mendatarrak eta nabarniztarrak Arrola Goikoa baserriaren ondoan dagoen Gaztañatxugana izeneko gunean dagoen mugarririaren inguruan alkartzen dira. Egun horretan, hiru udalerrietako alkateek komunikadu bat irakurten dabe, Urdaibai eta Bizkaiko historian hain garrantzitsua dan kokapen hau hiru herrien arteko eremua izatearen garrantzia berresteko.

Izan be, mendi honek, Arrolak, orain dala 2300 urte baino gehiago Bigarren

Burdin Aroko herrixka indigena handi bat hartu eban. Arrolako *oppiduma* esaten jako. Gune gotortu honek, *oppidum* izendapena merezi eban. Izan be, erromatarrek tamainaren eta lurraldearen kontrolaren aldetik garrantzitsuenak ziran kastro gotortuak *oppidumak* deitzen ebezan, eta Arrolakoa Itzela zan. Harresia babesteko Arrolako herrixkaren bizilagunek egindako lubakietarako zuloek eta herrixkaren aztarnek sortutako lur bihurriek ildoak eta urtenunez osatutako eremu irregularra agerian ixten dabe. Bere itxura bereziak inguru osoa definitzeko balio izan dau. Gernikako Hiri Gutunean, uribildu barriaren sorrera-agirian, *"cabas de Gastiburu"*ko izenez agertzen dan lurraldea aipatzen zan.

MAILA HANDIKO HERRIXKA

534 metroko Arrolako tontorrean dago Arrolako *oppidumeko* aztarnategi arkeologikoa, arranditsu. Erromatarrek iritsi aurreko herrixka izan zan eta mende askotan egon zan okupatua. Kristo aurreko. IV. mendean hasi ziran bizitzen bertan eta apurka-apurka ebolutionatuz joan zan. Kristo ondorengo I. mendean, Kantauri Ekialdeko kastrorik indartsuenetako bat izan zan.

Talde nomadek, historiaurrearen amaieran, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako herriak sortzea eta finkatzea erabaki ebenean, kastroak sortu ziran. Arrola mendiko gailurra kokaleku baliotsua zan herriko defentsa-izaera indartzeko. Bere panoramika zirkularrak babesa emoten eutseen bertako biztanleei.

Burdin Aroa garai nahasia izan zan, hasierako herri hareetako biztanleen

>>>

egunerokoan gatazkak nabariak ziran. Horregaitik, Arrola mendiko kokapen estrategikoa biziraupenaren eta defentsaren kartak ondo jokatzeko aukera ezinhobea zan.

Arrolako Kastroko biztanleek inork ez bezala jakin eben gailurraren inguruak aprobetxatzen euren herriari forma emoteko, eta horri defentsarako egitura indartsuak gehitu eutsoezan. Argi dago Arrolako biztanleak oso gerlari onak zirala, eta beren herria defendatzeko erabili ebezen defentsa-sistema kora-pilatsuekaz egiaztatu eben hori. Adibide garbia da kastroko ipar-mendebaldeko atean etsaiak hartzeko erabiltzen eben "tranpa" bihurria. Ate horregaz herrira gerturatzen zirenak derrigorrez labirinto-korridore batetik "pasatzera"

behartzen ebezan eta albo guztietatik erasotuak izatera behartu. Mota horretako defentsa-sistemak beste eremu batzuetan ohikoak ziran, esaterako mundu helenistikoan.

Arrolako *oppiduma* edo Kastroa Urdai-baiko herrixkarik garrantzitsuena izan zan Erroma iritsi zan arte, Kristo ondorengo I. mendean.

Arrolako Kastroko biztanleek inork ez bezala jakin eben gailurraren inguruak aprobetxatzen euren herriari forma emoteko, defentsarako egitura indartsuak gehituz



Arrola mendiko tontorra. Argazkia: Nueva Europa

ARROLAKO OPPIDUMA (Arratzu, Bizkaia)
Urdaibaiko kultura indigenaren talaia.

JUAN JOSÉ CEPEDA OCAMPO, Kantabriako Unibersidadeko irakaslea eta Arrolako aztarnategiko zuzendaria.

Bizkaian ezagutzen diran Burdin Aroko aztarnategien artean bereziki aipagarria da Arrola mendiaren gainean dagoen kastroa, Arratzu, Mendata eta Nabarniz udalerriek bat egiten daben tokian. Kokaleku protohistoriko hau, Nabarniz edo Maruelezako kastroa be deitua, 1827an esplorau zan lehen aldiz, eta orduan bere defentsa eta sarrerren plano bikaina egin zan. Geroagoko lanak, 1942an eta 1982-1985ean, konserbautako defentsa-egituretan oinarritu ziran, perimetroa eta eraikuntza-paramentuetako batzuk birdefniduz.

2000. urteaz geroztik, Bizkaiko Foru Aldundia jarduera-esparru barri bat garatuz joan da Arrolako oppidumean, bai asentamenduaren ikerketan, bai sendotze eta balioztatze lanetan. Horren guztiaren ondorioz, leku horretan altxatzen diran hondarren zati bat bisitatzeko egokitzapena egin da. Bertara sartzeko, gotorlekuaren hegoaldeko eta ipar-mendebaldeko bi ateak erabili ahal dira. Azken horretan kokatutako informazino-panel batek interpretatzeko oinarrizko datuak emoten dauz. Harritze-koa da, zalantza barik, harresien tamaina, jatorrizko tarte batzuk lau metroko altuera gainditzen dabe eta.

Arrolako oppiduma herrixka handia izan zan, 7,5 hektareako hedadura eukan erdialdean, eta bigarren Burdin Aroan egon zan martxan, K.a. IV. eta I. mendeen artean. Gastiburuko gailurraren hegoaldeko alde osoa zeharkatzen dauen harlangaitzezko hesi indartsu batek mugatuta egoan, 750 bat metrotan zehar. Kanpoko perimetroa lubaki baten bidez indartuta egoan, aztarnategiaren mendebaldean zati baten induskatuta. Harresiaren osagarri, kanpoaldera proiektatutako dorreak eta bastioiak egozen, gunerik kalteberenetan kokatuak, esparruko ateak zabaltzen ziran tokian. Zehatz-mehatz ezagutzen da ipar-mendebaldeko atea: korridore bihurgunetsu bat, harresiko urtenuneak babestuta alboetatik, eta aurrez aurreko sarrera eragozten eban bastioi bat.

Arrolako barruko esparruan hainbat etxebizitza eta biltegi multzo identifikau ahal izan dira, planta estu eta luzekoak, bata besteari atxikita, garai hartan Ebroko haranean egiten zan moduan. Egokitutako terraza baten gainean egozen, harresiaren ondo-ondoan. Horreetatik oinarriari dagokion harrizko zatia baino ez da konserbatzen, eta hori, altueran, buztinezko eta egurrezko armazioaz egindako hormekaz osatzen zan. Herrixka handi hau modu baketsuan itxi eben erromatarrek eremua konkistau ondoren. Gaur egun, ikertzaileek K.a. 40-30 urteen artean kokatzen dabe une hori.


ARROLAGUNE, Arrolako oppidumaren Interpretazio Zentroa

Arratzuko Loiola auzoan dago. Bertan, Burdin Aroko Herrixka honen historia sakonean ezagutzeko aukera eskeintzen da.

Domekatan zabalik, 10:00-14:00.

>>>





Arrolako mendiko mapa topografia, gorriz, Arratzu, Mendata ta Nabarniz herrien arteko mugarrria. **Mapa:** Geobizkaia.

LEGENDA-MENDIA

Arrola mendiko aire mistikoa Bastazarreko espazio misteriotuak emoten dau, Arrolako *oppidum*etik 500 bat metrora dagoena. Mendi-hegaleko terraza eremu bat da eta bista ederrak dagoz bertan. Bastazarreko monumentua Arrolako *oppidum*etik gertu dagoen hegale baten gainean dago. Lau harmailaz osatutako egitura konplexu batez osatuta dago. Harmaila horreek plaza baten batzen dira, anfiteatroen antzera, eta alkarren artean hiru pasabide estu dagoz.

Esparrua Mediterraneoko hiri askotan ezagutzen ziran *ekklesiasteria* eta *comitia* izeneko esparruen antzekoa batzeko gunea zan. Horreek bezala, beste erabilera posible batzuen artean,

Arrolan bat egiten dabe Nabarniz, Arratzu eta Mendata udalerriek. Hiru herriak harro dagoz Arrola mendiaz eta urtero ospatzen dabe mendi hau hirurona izatea

batzar politikoak burutzeko erabili eitekeen, nahiz eta aurreko garaietan nekropoli bat egon. Eraikuntza- eta kokapen-multzoak oso giro bereziko parajea sortzen dau, gure irudimena askatzeko aparta.

Mendia eta herrixkaren hondarrak, orain dala mende batzuetatik hona, eleza-

harren sorburu izan dira:

"Arrola mendiko gailurreko leku bati Maruelexa deitzen jake, «mauruen eleiza?». Bertan, Burdin aroko gotorleku edo kastroko baten hormak dagoz. Elezaharrek dinoe, urrea egoala han lurperatuta. Hau be kontatzen dabe inguruan: *Doñine goisien, euskijen urtetean, Maruelexan urteten dau lurretik*

galdarie, eta ure urteten daben lekuen, ez dala urteten idie, esaten dabe. (Maruelexan, San Joan eguneko eguzkiaren irteeran, galdara bat ateratzen da lurretik; esaten dabe galdara ateratzen dan tokian ez dala iratzea jaiotzen)".

Kastroa Maruelexa izenez ezagutzen da eta "mauruen eleiza" bezala itzul daiteke. Kondaira zaharrek dinoe urrezko galdara bat dagoela ezkutatuta, San Joan eguneko goizean bakarrik ikus daitekena lehen eguzki izpiekaz". Bitxia bada be lurperatutako altxorren

elezaharrak ohikoak dira leku askotan, (...) kultura atlantiko magikoetan (...) "mouro" izeneko personaia mitiko baten zaintzen dauen lurperatutako altxor bat dagoela kontatzen da, San Joan eguneko goizean leku horreetara hurbiltzen dan persona ausartak aurkitu ahal izango dauena. Mito honek lotura zuzena dauko Ama Lurraren kultuagaz eta mendien izaera sakratuagaz. **UM**

Iturriak

- Auñamendi Euskal Entziklopedia.
- Euskal Herriko Atlas Etnografikoa, Labayru Fundazioa.
- GeoBizkaia.



Itsasadarraren ikuspegia Arrola menditik. **Argazkia:** Nueva Europa



kulturklik

KULTUR AGENDA OSOA
ATARI BAKAR BATEAN



AURKITU
EZAZU ZUREA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

PUBLIERREPORTAJEA



ARRATZUKO
UDALA

INGURUMEN-KALIDADEA IBAIETAN

Arratzuko Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dau Uraren Euskal Agentziagaz (URA), sakabanatutako auzoetako isurkinak udalerriko saneamendu-sare orokorrean sartzeko proiektua gauzatzeko. Helburua da Golako eta Gorozika ibaien ingurumen-kalitatea hobetzea. Ibai horreek funtsezkoak dira Urdaibai eskualdeko ur-hornidurarako. Jarduketa hau beharrezkoa da gaur egun bi ibaien ibilguei eragiten deutseen hobi septikoetatik datozen isurketak ezabatzeko. Izan be, hauen kutsadura arriskutsua da Urdaibaiko hornidurarako hartutako uraren kalidaderako. Zubiare auzoan, lau baserrik hondakin-urak isurtzen dabez erreken bi puntutara, eta, ondorioz, lehenbailehen lotu behar dira saneamendu-sarera. Horrela, auzoko iparraldeko baserriak hegoaldeko kolektoreagaz lotuko dauzen kolektore nagusi bat eraikiko da. Era berean, beste hiru adar sortuko dira tartean dagozen baserrietako hondakin-urak batzeko. Inbersinoa 174.796,66 eurokoa da (BEZa barne) eta URAk finantzauko dau oso-osorik. Arratzuko Udalak bere gain hartuko dauz obren kontratazioa, zuzendaritza tekniko eta mantentze-lanak.



BUSTURIKO
UDALA

HAPO BARRI BATEN DISEINUA HERRI-TARREN PARTAIDETZAGAZ

Busturiko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokor barria idatziko dau. 2005ean hasitako HAPOri uko egin deutso, zaharkituta geratu dalako, eta testu barriaren idazketa esleitu dau. HAPo barriaren idazketa Arrutiark, S.CP enpresari esleitu jako, 223.245 euroan. Holan, beste pausu bat emongo da, udalerrriak udalerrriaren urigintza-etorkizuna zehaztuko dauen plan barri bat izan daian. Aldi berean, Udalak toki-ko HAPOren herritarren partaidetzarako programa onartu dau. Parte-hartze programan talde politikoan, teknikarien eta herritar banako eta antolatuen ahotsa jasoko da. kanalak honako honeek dira: jente-aurreko informazioaren izapideak; informazio eta prestakuntzako hitzaldiak eta Udalen webgunea eta tailerrak/taldeak. Helburu horregaz, urigintza-lantaldeak eta -tailerrak sortuko dira, udalerrian dagoen uri-arazoak sakonago ezagutzeko, gizarte-taldeek (haurrek, emakumeek edo adineko pertsonek) espazio publikoak zelan erabiltzen dabezan jakiteko, eta, aldi berean, giza talde bakotzak bere inguruko arazoetan parte-hartze zuzenagoa izateko.



EREÑOKO

UDALA

ARGIZTAPEN IRAUNKORRAREN ALDE

2025eko azken hiruhilekoan, Ereñoko argiteria publikoa hobetzeko proiektu garrantzitsu bat gauzatu da, auzoetan 20 farola fotovoltaiako instalatuko. Udalak energia-eredu iraunkorrako baterantz aurrera egiteko, kontsumo elektrikoa murrizteko eta segurtasuna eta argiztapena hobetzeko egin dauen apustuaren parte da jarduera hau. Argi barriak honelan banatu dira: 3 unidade Gabikan, 4 Bollarren, 6 hilerriaren inguruan, 2 Zeetan, 3 Elizalden — horreetatik 2 aparkaleku publikoaren sarbideetan jarri dira erabiltzaileen ikuspena eta segurtasuna hobetzeko — eta, azkenik, 2 unidade Basetxetan. Instalazio-puntuak hautatzeko, erispide teknikoak eta bizilagunen beharriak hartu dira kontuan. Proiektuaren idazketa eta zuzendaritza teknikoa ESETEKen bidez egin da, eta 6.500 € gehi BEZaren % 21eko kostua izan dau. Instalazino-lanak, barriz, INGESLEC enpresak egin dauz, eta 29.900 € gehi BEZaren % 21eko kostua izan dau. Udalak % 80ko dirulaguntza jaso dau Ingurumen Jasangarritasuna eta Ingurune Naturaleko Sailatik. Lanak 3 hilebeteko epean amaitu dira.



ERRIGOITIKO

UDALA

TOKIKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA 2030-2050

Errigoitiko Udalak Klima eta Energia 2030-2050 Tokiko Plana egiten ari da, ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko daukon konpromisoaren esparruan. Epe luzerako tokiko plangintzarako tresna izango da eta sektore guztien ikuspegia integratuko dau. Planak kalteberatasuna eta pobrezia energetikoa murrizteko ekintzak definituko dauz. Haren garapena prozesu egituratua eta diziplina anitzekoa izango da, udalerriri klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren aurkako estrategia integrala emotera bideratua. Plana bat etorriko da indarrean dagoen araudiagaz (Euskadiko Energia Estrategia 2030 eta KLIMA 2050), eta hainbat fasetan garatuko da: prestaketa-fasea (Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea, etab.), arintze- eta egokitze-diagnostikoa (pobrezia energetikoaren diagnostikoa barne), formulazino estrategikoa, eta ekintza-plana, ebaluazinoa eta jarraipena. Prozesu osoan, funtsezko eragileen, alkatteen eta herritarren parte-hartzea eta inplikazinoa sustatuko da. Planaren idazketa 5.635 euroan esleitu da.



FORUKO

UDALA

BIDE-SEGURTASUNAREN ALDE

Foruko Udalak, tokiko garapen ekonomikoagaz eta herritarren segurtasunagaz konprometidua, V16 balizen fabrikatzaile dan Atressa Automotive Factory, S.A. herriko enpresagaz lankidetzak-ekimen bat jarri dau martxan. Lankidetzak honi esker, Udalak 500 V16 baliza erosi dauz eta bere bizilagunen artean oparitu dau gailu hau. Etxebizitza bakotzeko baliza bat emon da eta udaletxean banatu dira. V16 balizak derrigorrezkoak izango dira 2026ko urtarilaren 1etik aurrera, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren araudiaren arabera. Lankidetzak horri esker, herriko bizilagunek doan jaso dabe V16 baliza homologaua. Foruko Udalak aurrea hartu deitso araudiari, eta familia bakotzak bide-segurtasuneko elementu hori izatea bermatzen dau. V16 balizak larrialdiko triangeluak ordezkaturiko dauz, eta abantaila handiak eskeintzen dauz. Ekimen honen bidez, Udalak herritarren segurtasunarekiko daukon konpromisoa indartzen dau eta tokiko industriari balioa emoten deitso.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

HERRIKO BEHARRIZANETAN INBERTI-DUTEKO AURREKONTUA

Gautegiz Arteagako Udalak, urteko azken osoko bilkuran, 1.333.998 eurotan onartu dau 2026rako aurrekontua, hau da, aurreko urteagaz alderatuta % 8,7 gehiago. Gobernu-taldearentzat, herritarrekiko hurbiltasuna funtsezko lan-ildo da; horregaitik, alkateak auzobatzarrak egin dauz, herritarren benetako beharrak ezagutzeko eta, ahal dan neurrian, hareen ekarpenak udalerraren hobekuntza-estrategian sartzeko. Isla Bekoan egingo dan espalo barria eta trafikoa lasaitzeko hartuko diran neurrien kasua da hori, 30.000 euroko inbersinoa daukon proiektua. 2026rako beste inbersino garrantzitsu batzuk be badagoz, besteak beste, Mendiak eta Muniategiko espalo barria (92.000 €), ibilgailu elektrikoak kargetako puntua (43.000 €) eta gimnasioko makineria (5.000 €). Udalak legealdiko programa beteteko eta udalerriko bizitza hobetzeko konpromisoari eusten deitso, herritarren laguntzagaz. 2026an zehar auzobatzar gehiago programauko dira auzoetan.




GERNIKA-LUMOKO

UDALA

KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BABESLEKUAK

Gernika-Lumoko Udala, klima-aldaketak eragindako bero-boladen gorakadak osasunerako dakartzan arriskuez jabetuta, udalerriko babesleku klimatikoen sarea diseinatzeko lanei ekin deutse. Bero-boladetara egokitzeko eta herritarrek uri-azpiegiturak erabiliz babesteko neurria da. Holan, herriko kanpoaldeko zein barnealdeko gunek freskoak identifikauko dira, bero handiko egunetan herritarrentzat eskuragarri egongo direnak. Espazio horreek erosotasun termikoa eskaintzeko gaitasuna izango dabe, udan edegita egongo dira, eta doan eta herritar guztientzat eskuragarri egongo dira: berdeguneak, parkeak, udal-eraikinak, museoak, etab. Horiek guztiak babesleku klimatikoen sarearen parte izango dira. Proiektu honek bereziki babestu gura dauz pertsona ahulenak: adinekoak, arnas gaixotasunak daukeenak, kardiobaskularrak, 4 urtetik beherakoak, haurdun dagoen emakumeak, etab. Ekimen honen jatorria "Klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko Gernika-Lumoko Plan Integradua" da, eta URBAN KLIMA 2050 proiektuaren barruan dago.



IBARRANGELUKO

UDALA

SARRIONAINDIAK BERRESKURATUTAKO SIMON GANDARIAS BERTSOLARI IBARRANGELUTARRAREN MEMORIA OPARI-LIBURU

Ibarrangeluko Udalak, euskal kulturagaz konprometitua eta euskal diaspora balioetsi eta ezagutarazteko asmoz, Joseba Sarrionandiaren "We are plenty in here Euzkadin eginak" liburua banatu dau herritarren artean. Idazlanak ahanzturatik ateratzen dau Simon "Sam" Gandarias ibarrangelutarra, Amerikako euskal bertsolari eta artzaina, Amerikako mendebalde urrunean euskaraz idatzitako bertso ondarea itxi ebana orain dala ehun urte. Liburua testu arkeologia eta memoria historikoaren ariketa bat da eta egileak Gandariasek itxitako testuak hausnartu eta arakatzen dauz. Idazle ahaztu hau Ibarrangeluko Biderdi baserrian jaio zan. Sarrionandia Manu Sotaren eskuizkribu batetik abiatzen da bere ikerketarako, eta Maitena Irigorriren laguntza izan dau dokumentazino-lanetan. Argitalpenak Elantxobeko eta Ibarrangeluko udalen laguntza izan dau. Liburua eskuratzeko Kultur Etxetik edo Udaletxetik pasa ahal izan dira herritarrek, eta ezinean, Udaletxera edo Kultur Etxera deituz, liburua etxera eraman dau udalak.



KORTEZUBIKO

UDALA

HERRIA ERAIKITZEKO EKARPENAK

Kortezubiko Udalak zemendian udalerriko auzoetan egindako auzobatzarren balantzea egin dau. Topaketek oso parte-hartze positiboa izan eben, eta, horri esker, herritarrek zuzenean planteautako ekarpen, iradokizun eta beharrian asko jaso ahal izan dira. Gobernu taldea pozik agertu da herritarren inplikazioagaz, eta azpimarratu dau jasotako proposamenak aztertu egingo dirala, ahal dan neurrian, udal funtzionamentuan eta etorkizuneko jardueren plangintzan txertatzeko. Udalak azpimarratu dauenez, ekimen hau herritarrekiko partaidetza eta zuzeneko komunikazioa indartzeko konpromisoaren parte da, eta kortezubitarrengana udal kudeaketa hurbiltzeko topaketa gunek bultzatzen jarraituko dau. Izan be, gobernu taldearentzat, funtsezkoa da herritarrekaz harreman zuzena izatea; horregaitik, alkateak auzokideekaz topaketak bultzatu dauz, euren kezkak zuzenean entzuteko. Gainera, Karmele Enbeita Ozamiz alkateak astero eta urte osoan eskaintzen deutse arreta eskatzen daben herritarrei.



MORGAKO

UDALA

KARGA ELEKTRIKOKO PUNTUA, MOBIKORTASUN JASANGARRIA

Morgako Udalak, ingurumena errespetetan dauen mobikortasun jasangarria sustetearen aldeko apustuan, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak kargetako gune bat jarri dau Eleiz-ondo kalean. Kargetako zerbitzua Iberdrolak emongo dau. Kargak erraz kudea daitezke "Recarga Pública Iberdrola" aplikaziotik. Aplikazio hau telefono mobikorrekin deskarga daiteke Play Storen, Androiden edo Appleren App Storen bidez. Holan, erabiltzaileek karga-puntuaren erreserba kudeatu ahal izango dabe, kargaren identifikazioa egin, karga-puntuaren egoera ikusi, hurbilen dagozan puntuak aurkitu ahal izango dabez eta/edo kargen historialera sartu ahal izango dira. Iberdrolak APP bidez fakturauko deutsez kargak erabiltzaileei, indarrean dagoen merkataritza-politikaren arabera. Jasangarritasunerako eta ingurumen-kalidaderako beste pausu bat da, ibilgailu elektrikoentzako zerbitzu barri honen bidez. SMART MOBILITY edo karga-puntuaren kostua 13.863,90 €-koa izan da; horretarako, 2.772,78 €-ko dirulaguntza emon deutso udalari EEEK.



MURUETAKO UDALA

BODEGA TORREGANA ERAIKIN HISTORIKOAREN ETA BERE INGURUNEAREN BABESA

Murutako Udala konprometiduta dago udalerriko historia- eta ingurumen-ondarea babestegaz. Horrela, Bodega Torregana eraikin historikoaren eta bere inguruaren segurtasuna sendotzeko eta hobetzeko jarduketak egingo dauz. Horrela, beste pausu bat emongo da eraikinaren garrantzia azpimarratzeko eta bere ingurunea lehengoratzeko. Bodega Torregana leku pribilegiatu batean dago, eta bertatik itsasadarra ikusten da. Balio historiko nabarmena dauko, eta Busturialdea-Urdaibai lau gune estrategikoetako bat da, Madariaga Dorrea, Garunaga Dorrea eta Urdaibai Dorreagaz batera. Gainera, eskualdeko lehen txakolin eta champagne ustiatzietako bat hartu eban. Denboraren poderioz, eraikinaren zati batzuk erori dira, eta sasiz beteta dago ingurua. Kalte barriak saihesteko eta etorkizuneko birgaitzei begira egonkortasuna bermatzeko, ondoko eremua egokitzen ari dira: hondakinak barrutik kendu, egiturazko elementuak indartu, fatxadaren itxura babestu eta perimetroan hesi bat jarri, segurtasuna bermatzeko, besteak beste.

 Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa



URTE OSOAN BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS TODO EL AÑO



AURRETIZKO ERRESERBA
RESERVA PREVIA
634 243 762
www.visiturdaibai.com



Sukaldi
JATETXEA
by IÑIGO VELLO
MURUETA | 946 31 38 40



**GERNIKA RUGBY
TALDEA**
609 96 56 23
gernikart@gmail.com



Amurño Bitxitegia
S. Roke, 3 Gernika-Lumo
94 625 09 28
amurriovelez@gmail.com



Cuatro y medio
BARRENKALEA 13 BAJO, DCHA 48300 GERNIKA-LUMO 647 811 680



PEPI
"CHARCUTERIA SELECTA"
ESPECIALIDAD EN PRODUCTOS IBÉRICOS
1994-2024
30 años JUNTOS
Plaza del Mercado, P-7
Telf.: 608 001 428
charcuteriapepi@gmail.com
GERNIKA




SAN ISIDRO
Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkarteak
Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube
48300 Gernika-Lumo
Tel. 94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com
www.kooperatibasanisidrogernika.com



EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA
EUSKAL SOUVENIRS
Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com
@euskalsouvenirs



1000 kolorau
Taberna + Jatetxe
Plaza San Juan Ibarra, s/n
48300 Gernika-Lumo
94 625 76 19 / 628 548 572



**AUZOKOA
TABERNA**
Arcoiris de
sabores
Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66



EGUREN
ÓPTICA
CENTRO AUDITIVO
GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51



Arketa, Ibarrangelu. **Argazkia:** Nueva Europa

Gure irakurleen txoko gogokoenen bigarren edizinoan, Urdaibaiko beste bi gune eder nabarmendu doguz. Foruko landa-auzo lasai bat, bertan Triñe baseleiza protagonista dalarik, eta Ibarrangeluko Arketa ingurua, kostaldeko eta hondartzako paisaia lasaigarri eta, aldi berean, jentetsua.

Arketaren xarma

Laidako hondartzaren ondoan, Arketa inguruak bi gune kontrajarritan banatutako espazio bat osatzen dau, errepidea erditik doala. Alde batean, txoko lasai eta eder bat, panoramika xarmagarriak oparituz. Beste aldean, giro biziagoa, baita zalapartatsua be, udan.

Arketan, erritmoa azelerau edo moteldu egiten da metro gitxitan. Errepidearen alde batean, enbarkazinoak lotzeko gune bat gordetzen dauen arrada txiki batek panoramika ede-

rrak oparitzen deuskuz. Hemen dago Urdaibain argazkiak egiteko gehien erabilitako enkoadraketetako bat: ainguratokia, txalupak eta, atzealdean, inguruan integrata dagoen

xarma bereziko etxea. Bere edertasunaz isilean goatzera gonbidatzen dau txoko honek. Errepidearen beste aldean, sentsazioak bizkortu egiten dira. Bertan, Arketako kanpina eta ga-

ragardotegia topauko doguz, Atxarreko San Pedoren oinetan. Topagunea da, hondartzako egun baten ondoren freskatzeko edo garagardotegiaren berezko gastronomiaz giro lasaian goatzeko. Herritarrak eta urtero kanpinera joaten diran udatiarren arteko topagunea da be.

Kanpina 1981eko maiatzaren 16an inagurau zan. Garai hartako notizia

batek horrela aipatzen eban: *Euskadiko lehen udal-kanpina... Bizkaiko kostaldeko parajerik ederrenetako batean... Kantauri itsasoko turismo dentsidade gehien batzen dan lekue-tako batean, 1.000 lagunentzako edukieragaz eta 15.000 m²-ko azalerakoa.*

Halanda be, kanpineko lurak, urte batzuk lehenago, 30eko hamarkadan, oso bestelako irudia eskaintzen

eban, landaratza barik. Lur hau, 1934 eta 1939 bitartean, harria ateratzeko eta Bermeoko olatu-hormarako hormigoizko blokeak eraikitzeke erabili zan. Olatu-hormako obrak amaituta, soziedade emakidadunak lurak abandonau ebazan, eta 50eko hamarkadaren amaieran espazio handi hori eskola-kanpamentuetarako erabiltzen hasi zan.

Triñe, inguru atsegina

Triñe baseleiza Foruko ikur arkitektoniko eta historikoa da, tradizino eta hainbat jaien lekuko. Landa-ingurune baketsu honetan, urte batzuk lehenagoko bizimodua zelakoa zan imajinatzea erraza da.

>>>



Gaitoka auzoa, Triñerako bidea, ikuspegi orokorra (Foru). **Argazkia:** Nueva Europa

Triñeko baseleiza. Argazkia: Nueva Europa



Elejalde auzotik, bide eder batek, landaz inguratuta eta Atxarretik Erea-ñozarrera doan mendi lerroa atzean dagoela, Foruko Gaitoka auzorantz zuzentzen gaitu. Herriko gain batean dago, eta bertan Trinitade baseleiza dago, Triñe izenez ezagu- tzen dana.

Kofradiako kideak be batzen ziran. Tenplua Forun ikurra da, baita on- darrer historikoa eta antxinatik alkartzeko eta ospakizunen gunea be. XV. men- dearen amaieran eraiki zan, eta, bitxia bada be, historian zehar ezin konta ahala izen izan dauz. Hasiera batean

Ingurune lasai ho- netan, Triñeko er- mita txikiak bere arkuzko ateagaz egiten deutsu harrera, eta fa- txada nagusian dagoen harrizko zokaloetan atse- den hartzera gon- bidatzen zaitu. "Banku" hauetan, mendeetan zehar Foruko bizilagun- nak batu dira eta ermita zaintzen eban Errosarioko Andre Mariaren

San Adriango baseleiza bezala erre- gistratua agertzen da, XVII. mendean Santa Katalina ermita bezala aipatzen da eta XVIII. mendetik aurrera San Gregorio eta Trinitadeko Andre Ma- ria bezala. Beste bitxikerietako bat da barruan bonbardaketan suntsitutako Gernika-Lumoko San Juan eleizatik erreskatatutako erretaula baliotsua gordetzen dauela.

Ermitatik aurrerago, Trinizelaiko ha- riztia aurkituko dogu, ale gitxi batzuk baino ez dira geratzen. Gaur egun oindino ospatzen dan San Gregorio eguneko erromeria babesten dau hariztiak. Ingurune lasai honek beste sorpresa bat gordetzen dau: Urdai- baiko estuarioko paisaia bikaina aur- kituko dozu. Moltso osoak prisak isil- du eta lasaitasuna hedatzen dauen atmosfera magnetikoa sortzen dau.

UM

Zorionak



DABILEN
HARRIAK
GOROLDIORIK
EZ

Gabonetan be Sustabiz. Geure kirolak Sustatuz!




% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodedeaguas.eus

Etorkizuneko arrantzaren alde lanean gaur



AURELIO BILBAO

Bermeoko Arrantzaleen Kofradiako eta Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazinoko Idazkaria eta Bizkaiko Baxurako Arrantzako Ekoizleen Erakundeko (Opescaya) Zuzendaria.

Arrantza-sektorea belaunaldien arteko erreleborik ezak, arrainaren kontsumoaren jatsierak eta araudiaren konplejutasunak markadutako une batean dago. Aurelio Bilbaogaz egindako alkarrizketa honek sektorearen egungo erronkei begirada zuzena eskaintzen deusku, kuoten kudeaketatik hasi eta kontsumitzaile eta belaunaldi barriekaz konektetako beharreraino.



Ontziak berdez gainezka Bermeoko portuan (2007). **Argazkia:** Nueva Europa

Zein da arrantza-sektorearen egungo egoera?

Ikuspegi baikorra izaten saiatzen garen arren, panorama gero eta konplejuagoa da. Gero eta zailagoa da eskubeharra aurkitzea. Belaunaldien arteko erreleboaren arazoak balio-kate osoari eragiten deutso. Aspaldidanik zaila da hain ordutegi bereziak hartzeko prest dagozan langileak aurkitzea. Ez dago lanaldi finkorik. Arraina dagoenean egiten da lan. Izozte-plantan, produktuaren kalidadea prozesatzeko azkartasunaren araberakoa da neurri handi batean.

Gure arrantza-sektorea kohesinonatura al dago kuoten kudeaketari eta defentsari dagokienez?

Sektoreak aktiboki parte hartzen dau kudeaketan eta, zentzun horretan, sektore konprometitu eta kohesinonaturatua da. Gure flotak harrapetan dauzan kilo guztiak autortzen dauz, gardentasun osoz. MSC ziurtagiria dogu, parametro ugari betetea eskatzen dauena, baita hegaluzearen, bokartaren eta sardinaren behatzailak eta urteko auditoriak be. Bokartaren kasuan, Kantauriko Arrantza Ekoizleen Alkarteko (OPP) kide gara, eta urtero antxobaren arrantza arautzen dogu flota

bakotxak zelan lan egin behar dauen ezarritz: zenbat kilo arrantzau daikezan, zelan egin behar dauen eta zenbat deskarga daikezan portuan.

Ez dago erreleborik, eta arrainik?

Benetako arazoa ez dago arrantza-kanpainetan edo espezie gehienen biomasaaren egoeran, lurrian egiten dan kudeaketan baizik. Arrantzatzen doguzen espezieak, bokarta edo hegaluzea kasu, oso egoera biologiko onean dagoz: Kobeko diagramako berdegunean dagoz, populazino osasungarriak eta modu iraunkorrean ustiatzen dirala adierazoten dauz honek.

Halan be, bada bereziki eragiten deuskun espezie bat: berdela. Txosten zientifikoen arabera, biomasa maila gomendagarrien azpitik dago, eta, beraz, aholku zientifikoak %70eko murrizketa gomendatzen dau, hau da, itxiera tekniko. Bizkaian eta Gipuzkoan uste dogu, erantzukizunez, beharrezkoa litzatekeela arrantza ixtea, kuota hain txikiak ez dabelako ahalbidetzen jarduera errentagarri bihurtzea, eta, gainera, zaila da horreek errespetetan dirala kontroletea. Baina, nazinoarteko negoziazioetan, arrantza-kudeaketa ez da

gai isolatua, beste faktore batzuk be sartzen dira jokoan, halan zelan gasa edo petrolio. Eta hemen itxiera iradokitzen dan bitartean, iparraldeko herrialdeek, Norvegiak, Faroe Uharteek, Islandiak eta Errusiako Federazinok urteak daroez gomen-dio zientifikoen oso gaintik arrantzan. Parte hartzen dogun Aholku Batzordean, bertan Frantzia, Portugal eta GKEak dagoz be, Norvegia, Faroe Uharteak, Islandia edo Errusiar Federazinoa egiten ari diranaz ia ez dala ezer aditzen esan neutsen. Lau nazino horreei buruz ia ez da ezer esaten, ez Europako Parlamentuan, ez foroetan, eta horrek etsipena eragiten dau. Guri, Europar Batasunak araudi zorrotzak betetea eskatzen deusku, eta Europar Batasunekoak ez diranei, barriz, ez jake zalantzan jartzen. Gure tokiko flota ez da bere kuota osotzeko gai be, lehen pentsauezina zana. Lehen, berdel-harrapaketak hain handiak ziranez izozte-kameren beharra ikusi genduan, urtarokotasunari aurre egiteko edota karnata izateko.

Datorren urtea oso zaila izango da izozte plantentzat. Nire ustez, gure flota iparraldeko herrialdeetako baina erresilienteagoa da, eurek arrantza honegaz lotutako industria ikaragarria daukeelako. Itxiera

>>>

iristen bada, erantzukizuna espezieen kuotak errespetetan ez dabezanena da. Gure kudeaketa zuzena eta iraunkorra da.

Arraina oso karu dagoela entzuten da-nean, zer uste dozue sektorekoek?

Nik beti azpimarratzen dot, edozein foro-tan, bihotz apur bat gehiago izan behar dala. Danoi beteten jaku ahoa kilometro zero kontsumoagaz, baina, egia esan, jenteak prezioari begiratzen deutso, baita zentimo batzuk be. Uste dot publikoaren-tzako prezioak ez dirala larregikeriak. Ezinbestekoa da pedagogia-lana egitea produktua merkatura zelan iristen dan eta prezioaren atzean dagozan errazoiak azaltzeko, balio-kate osoa ezinbestekoa baita. Kostua ez da arrainaren beraren balioa bakarrik. Benetako bitartekaritza beharrezkoa da: logistika, banaketa, pro-dukтуaren prestaketa (buruen, arantzen eta merkaturatzen ez diran atalen artean, arrandegiak bere gan hartzen dauen ga-lera handi bat dago, bestela ezingo lukee-lako produktua kontsumitzaileari eskaini) eta banaketa handia, arraina kontsumi-tzailearengana baldintza egokietan iriste-ko funtsezko zeregina beteten dauena.

Ze beste faktorek eragiten deutsee kontsumitzaileari?

Ez da bakarrik jenteak ez dauela erosten uste dauelako arraina garestia dala. Hain-bat errazoigaitik ohiturak aldatzen ari dira eta, ondorioz, arrain-kontsumoa jatsi eta beste produktu batzuen handitu egiten da. Hori pasatzen da, nahi-ta, osasunaren ikuspegitik, beti azpimarratzen dan arrai-na aukera onenetako bat dala. Uste dot ez garela ohartzen moda batek nutrizi-noan be izan daikkeen eraginaz. Izokinak, adibidez, prezio altua dauko, eta, halan be, lekua hartzen ari jaku. Oso presente dago kirolarientzako dietetan eta bizitza osasuntsu baterako nutrizino-gomen-dioetan.

Arrain-kontsumoa sustatzeko estrate-giarik planteetan al da?

Aztiri, Eusko Jaurilaritzaren laguntzagaz, iparraldeko hegaluzearen onura guz-tiak adin guztietarako identifiketea eta zabaltzea ahalbidetuko dauen ikerketa bat enkargatzea baloretan ari gara. Gure ustez, hori da kontsumoa bultzatzeko

modurik onena, ziur baikaude ezaugarri asko daukozela. Gainera, publizidadea funtsezkoa da arrainaren kontsumoa bult-zatzeko. "Arrantza-saltzailea" preskriptore gisa izatea, zer eroan eta zelan prestau gomendatuz, galtzen ari da. Gaur egun, arrandegi askok dirua galtzen dabe eta konponbideak bilatzen dira, halan zelan erretiluetan prestatutako produktu garbia saltzea. Horrek langileen beharra murriz-ten dau, kontsumitzailearen erabagia errazten dau eta erosteko eredu tradizi-nonala aldatzen dau.

Egokia litzateke eskoletatik kontsumoa sustatea, baina jantokiak hazurrik bako es-pezieak eskaintzeko baldintzatuta dagoz, eta horrek produktu izoztuak eta kostu txikerragokoak ekartzen dauz, eta ikas-le bakoitzeko ordaintzen dan prezio oso bajuagaitik be. Marjina horreekaz, *cate- ringek* ezin dabe bertako eta kalidadezko arrainik eskaini.

Zero kilometroko produktuak erabiltzen dabezan *"catering"*ei laguntzeko estra-tegiak planteau dira, baina legez ez da erraza jatorriaren arabera bereiztea, eta gurasoek elikadura hobe eska daien bilatzen da, ikastetxeek kalidade handia-goko arrainaren erabilera justifika daien, nahi-ta hori epe luzera bakarrik izango dan bideragarria.

Zein da kontsumitzailea hurbiltzeko bi-dea?

Orain dala gitxi, Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleen kofradiek, Hazilur finan-tza-etxeagaz batera, "Kofradia *Basque Seafood*" eratu dogu Ondarroan, preste-tako prest dagozan arrain-produktuak eta momentuan jateko prestanta dagozan platerak egiteko. Ez deusagu itxiko bes-te latitude batzuetako arrainak merkatu-ratzeari edo eraldatzeari, baina bokarta, hegaluzea eta berdela hartu gura doguz ardatz, lebatza eta txitxarro ez ezik. Estra-

tegia da hegaluzeari lehentasuna emotea eta txarriagaz egiten dana lortzea, txarritik mozketa guztiak aprobe txetan dira eta. Kontsumo-joera barrietara egokitu behar dogu. Hori da sektoreko profesinonalekaz garatzen ari garen proiektuaren amesa, banaketa handiagaz lotura handia daukon jenteagaz. Euskadik TACaren (Harrapake-ta Onargarria Guztira) % 50 baino gehiago harrapetan dau, eta horrek gaur egun bai-no askoz garrantzitsuagoa izan daitekeen industria baten inguruan kokatzen gaitu. Kontserba-fabrikarik ez balego, produktu fresko guztia berehala kontsumidu be-harko litzateke edo asko izoztu beharko geunke.

Prest al dago kontsumitzailea arrain es-kaintza barritzaile baterako?

Ondarroako enpresaren ekimen honegaz, zuzenean ezagutuko dogu pedagogiak eta barrikuntzak sektorean daukeen ga-rrantzia. Atun gorriak merkatu finkatua dauko, prezio oso altuekaz. Zergaitik ez hegaluzeagaz antzeko zeozer bultzatu? Zergaitik ez hegaluzez egindako *sushi*-a? Landu egin behar da. Hegaluze xerraz egindako platerak dagoz, kartako gares-tienak. Hori da bidea. Aurrekoan, influencer talde bat konbidau genduan hegaluzea-gaz eta bokartagaz egindako produktuen dastaketa txiker batera. Horrelango propo-samenak eta publizidade gastronomikoa

Benetako arazoa ez dago arrantza-kanpainetan edo espezie gehienen biomasaren egoeran, lurrean egiten dan kudeaketan baizik

rean jarraitu ahal izateko, itxi beharrean. Arrainontziteria gitxituz doa, diru-sarre-rak, gastuak eta, eraginkortasuna dala eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekoizleen erakundeak batu egingo gara Euskadiko Baxurako Arrantzako Ekoizleen Erakunde bakarrean.

Zenbat tripulazino daroe Bermeoko i-tsasontziek?

Geure ontzietako batek gehienez zazpi tripulatzaile daukoz. Persona gitxiago izan arren, tripulatzaile bakoitzeko harrapake-tak oso handiak dira. Gaur egungo me-kanikari eta teknologiar esker, itsason-tzi horreek antxinakoek baino gehiago arrantzetan dabe. Lehengoek 15 tripula-tzaile behar ebezan.

Soldatak eskakizunaren mailan dagoz?

Tripulatzaile bakoitzeko diru-sarrerak erakargarriak dira, baina zaila da gazteek arrantza-le moduan lan egiteko interesa izatea, nahi-ta eskola nautikoetan peda-gogia eta dibulgazino lanak egin, ordu-tegi eta baldintza konbentzionalagoak bilatzen dabez eta. Erreleborik eza hain da larria, eze armadoreek be erretiretea planteetan dagoz eta Europako Batzor-deari behin betiko geldiarazoteko planak eskatzen deutsez. Eskari bera dauke be, tripulazino-eskasia dala-eta, hainbat he-rrialdetako ontziek. Laburbilduz, panora-ma oso iluna da.

Ze presentzia dauko emakumeak sekto-rean?

Sektorean ez dago emakume askorik, bai-na ez da diskriminazinoagatik, ezta gure borondatearen faltagaitik be. Orain dala bi urte, adibidez, gure ontzietako batek kostaldeko patroiz balioaniztun bat behar eban, eta emakume bat ontziratu zan ino-lako arazorik barik. Oztopoa da, oro har, jente gitxik daukola itsasoan lan egiteko interesa. Gure aldetik, gustauko litxakigu emakume gehiago egotea.

Ba al dago belaunaldi barriak sektorera hurbiltzeko programarik?

Eusko Jaurilaritzaren ITSASORATU programak bekak eskaintzen dauz itsas-

arran-tzako ikasleek itsasontzietan praktikak egin daiezan, prestakuntza praktikoa, gazteen sarrera eta emakumeen parte-har-tzea sustauz. Hegaluzearen kanpainan eskandalizatuta ateratzen ez diran gazteak sartzen ari dira. Bajurako arrantza da erakutsi gura deusueguna. Agian danak ari dira pentsetan altuerako atunontzi izozkailuetan eta lau hilebetez etxetik kanpo egon behar daben flota horreetan.

Ze presentzia dauko adimen artifizialak arrantzaren munduan?

Ez harrapaketarako, ezta robot bat arrantzan jartzeko be, oraingo behin-tzat. Adimen artifiziala gura dogu tramite burokratikoetarako. Arrantzaleek badakie arrantzan, baina kudeaketa administra-tiboa gatx egiten jake eta denpora asko eramaten dau horrek. Probak egin doguz harrapaketen deklarazino bategaz, argaz-ki batetik automatikoki identifikatzen dauz espezieak eta datuak bialtzen dauz. Hori da lehen pausua, baina Madrilgo sistemak integretako aukera emon daian behar dogu. Hegaluzearen zatiketaren automatiza-zinoari dagokionez, gaur egun ez dago teknologia egokirik, ale txikerrentzat izan ezik; oso zaila da, erraiak daukozen pro-dukту freskoa eta hezea baita, baina etor-kizunean lortzeko ikertzen jarraitzen da.

>>>



Hegaluze kanpaina. Argazkia: Nueva Europa



Ohiko arraindegia. **Argazkia:** Nueva Europa

Ze beste arlotara bidera daiteke sekto-reko barrikuntza?

Dibersifikatea da asmoa. Interesgarria da arrainaren azpiproduktuen aprobetxamendua aztertzea, hainbeste alperrik ez galtzeko. Etorbizuneko itsas errota eoliko-etatik gertu instalauko diran *offshore* lan-tegiei lotutako jarduerak be gara geinkez. Proiektu horreek guztiak gertutik jarraitzen ari gara. Jarrera ez da kontra egotea, baizik eta ikustea zelan egin daikugun mesede eta zelan parte hartu ekimen horreetan. Aukerak badagoz, aurrera.

Zuen ustez, klima-aldaketak eragina dauko arrantzan?

Ez gagoz ziur, baina gure arrantzan ez dogu nabaritu klima-aldaketari egotz dakioken ondorioirik, bokarta, esan dodan lez, hazi egin dalako eta hegaluzea egoe-ra onean dagoalako. Berdelaren arazoa da ez dagoala biomasa nahikorik eta batzuk behar baino gehiago ari dirala harrapetan. "Pastela" gero eta txikerragoa da, eta, hain be, gero eta gehiago arrantzetan da. Izan be, aitatu dodazan legez kanpoko harrapaketen aurkako protestak dagoz Europa osoan.

Zer suposatu dau European egoteak arrantza arautzeko eta gure arrantza-sektoreari laguntzeko?

Europak, nahiz eta bere arazoak izan, batez be laguntzen bidez egin deutso me-

sede arrantza-sektoreari, baina orain une zail bati aurre egin behar jako. Orain arte arrantzarako aurrekontu eksklusiboa genduan, baina badirudi aurrerantzean txikerragoa izango dala eta aurrekontu orokor baten parte izango dala eta sektore bako-txak bere aldetik burukatu beharko dau. Espainiak, Europar Batasunean sartu barik, nekez gaingituko ebazan arrantza-sektoreak izan dauzan arazoak. Arrantza-sektorearen BPGa kalkuletan danean, agertzen dan zifra oso txikerra da. Baina, nire ustez, BPG kalkuletak, kontuan hartu beharko litzateke zenbat institutu zientifiko bizi diran arrantzatik, zenbat ikasketa-enpresa dagozan arrantzaren mende, zenbat teknologia garatzen dan European eta hemen arrantzari esker, eta zenbat enpresa jausiko lirakekeen sektorea desagertuko balitz. Jarduera ekonomiko asko arrantzari esker mantendutela dira zeharka.

Ze eragin dauko gero eta handiagoa dan iraunkortasunarekiko kezka sozialak?

Beti esaten dot gugaz ados ez dagozanekazu batu behar dala, ez bakarrik gure alde dagozanekazu, eta sektoreari buruz dauken ikuspegi erratuta desmontau. European, batez be GKE batzukaz berba egitea oso zaila da, besteak beste, ez dabelako behar adinako ezagutzarik eta arrantza industrial eta masibo batean soilik pentsetan dabelako, dagozan arrantza motak ulertu barik.

Nire ustez, sektorea prest dago iraunkortasunaz eta produktuen jatorriaz gero eta kezkatuago dagoen gizartera egokitze-ko. Izan be, guk aurea hartu deutsagu: iraunkortasun-ziurtagiriak daukaguz aspaldidanik. MSCn (*Marine Steward-ship Council*) arrantza-jasangarrirako eta arrantza-produktuen trazabilidaderako nazi-noarteko estandarrean sartu genduan, eta, teoriarik, kontsumitzailea prest egon beharko litzateke ziurtagiria daukon produktuagaitik zeozter gehiago ordaintzeko, baina ez da beti holan izaten. Merkatuak ez badau balio hori autortzen, zertarako balio dau? Bestela, mundu guztiak inportazinoko arraina jatea izango zan urtenbidea, eta holan inork ez dau jakin-go jasangarria dan ala ez. Bien bitartean, Afrikan eta beste leku batzuetan oindino be itsasoa agortzen dagoz, eta apenas berba egiten da horretaz. Urte askotan, jenteak arrain freskoa jateko ohitura galdu dau. Hemen oindino badira arrain guztiek sabore bardina daukeela esaten dabenak, baina hori heziketa kontua da. Nik neuk belu ikasi neban arraina estimetan. Amak oindino gogoratzen deust honetaz berba egiten dogun bakotxean. **UM**

Arabako Errioxa naiz

Eta nire etiketan esanda dago dena.

Nire jatorriaz hitz egiten duelako, kalitate berdingabeaz, esperientziar, berrikuntzaz.

Saltoki eta jatetxeetan arretaz begiratu etiketari; Arabako Errioxa jarri behar du.



Soy Rioja Alavesa


Y mi etiqueta lo dice todo.

Porque habla de mi origen, de una calidad única, de experiencia, de innovación.


Fíjate en comercios y restaurantes que en la etiqueta ponga Rioja Alavesa.



Kontsumo arduratsua. Consumo responsable.



hazi

San Pedro eta San Pablo ermita. Ibarri. Muxika. **Argazkia:** Nueva Europa

Muxika Espirituala

Erdi Aroko erlijinotasunak arrastoa itxi dau gure herri eta auzoetan. Ibarruriko¹ Eleizatea da adibide on bat. Izan be, garai bateko bizitza espiritualari lotutako eraikinak duintasun barez gordetzen dauz. Horren lekuko dira Ibarruriko mojetxea eta Muxika auzoan bertan dagoen San Pedro eta San Pablo ermita gotikoa.

Ibarruriko Elexalde auzoak (Muxika), landa-gune bikaina, ia oharkabean dagoen eraikin berezi bat hartzen dau, isiltasunean eta diskrezinoan bildua. XVI. mendearen hasieran Ibarruriko mojetxea edo Andra Mari Madalenaren mojetxea hartu eban jauregi-etxea da, geroago nekazarien etxe bihurtu zana.

Erdi Aroan etxetzar honek bete eban funtzinoa ulertzeko, garai hartako Bizkaiko gizarteari perspektibaz begiratu behar deusagu. Mojetxeak deiturikoe-tan, emakumeen presentziaren tradizio erro-tua egoan. Mojetxe (serorategi) ho-rreek Erdi Aroko emakumeen komuni-dadeak ziran. Emakume hauek gizabide eredugarriek gidatutako bizitza espi-rituala zeramaten. Emakume dohatsuek, laikoak normalean, ordena eta kongre-gazino katoliko desbardinei lotuak, ez

Mojetxeak Erdi Aroko emakumeen komundadeak ziran, gizabide eredugarriek gidatutako bizitza espirituala zeramatenak. Ibarrurikoa be horrelakoa zan

eben botorik egin, haiekaz harreman es-tua izan arren. Ibarrurikoak kastidadean, lanean, barauan, penitentzian, eskekota-sunean eta otoitzean oinarritu ziran.

Ibarruriko mojetxea ez zan kasu isolatua izan Euskal Herrian. Ez dago garai hartako dokumentazio askorik (XVI. mendea), baina adituek² dinotenez, 80 euskal mo-jetxe egon eitekezan, horreetako bi gure eskualdean: Ibarrurikoa eta Gernikako mojetxea³ (ondoren Santa Klara komen-tuan bihurtua).

Lehenengo mojetxeak alkarregaz bizitzea erabaki eben hiru edo lau lagunek osatu-tako komundade txiki lez sortu ziran, nor-malean haietako baten edo senide baten etxean, beren kezka espiritualei erantzuteko. Arautu bako erlijinotasuna bizi eben emakumeentzako askatasun-eremuak ziran. Harik eta Trentoko Kontzilioak⁴ esku hartu eta serorategi guztiei erlij-i-no-erakunde ortodoxoren batean derri-gorrez sartzeari eta nahitaez ixtea agindu eutsen arte.

Ibarruriko dohatsuek Trentoko jarraibi-deak bete ebezen neurri batean, 1594an Mesedeetako Ordenari lotu ziran. Izan be, eraikinak Mesedeetako armarrria man-tenetzen dau oraindik. Halanda be, uko egin eutsoen itxialdiari. Pobrezia larrian bizi ziran, eta kalera irteteko debekuak, ezta limosna eskatzeko be, miseria han-diagoan bizitzera behartuko eutsoen. Trentoko Kontzilioak be ez eban begi onez ikusten emakume haiek Ibarrurin, leku bakarti batean bizitzea, eta bes-te baldintza bat jarri eban: emakumeen monasterioak hiri edo leku jentetsuen barruan kokatzea⁵, eta horrek azkenean beatak eraikina ixtera eraman ebazan.

Marina Saenz de Iturburu andreak, Juan Iñiguez de Arteaga dirudunaren alar-gunak, bere ondasun guztiak Ibarruriko beaten komundadeari itxi eutsozan, eta, horri esker, bere jabetzako erre-nteria-etxea Mesedeetako komentu barria bihurtu zan. Gaur egungo eleiza ko-mentuaren ondoan eraikitzeko, lehengo mojetxea saldu behar izan eben 1638an. Etxe hori nekazarien etxe bihurtu zan, eta, gaur egun, Ibarruriko erdigunean dago.

LANDA-GOTIKOAREN ERREFERENTEA

Eraikin berezi horretatik oso gertu, au-zoaren sarreran, San Pedro eta San Pablo ermita gotikoa dago (XV-XVI. mendeak). Leitekeena da eleiza eta mojetxea garai berean jardunean egotea. Eleiza Bizkai-ko landa-gotikoko tenplurik nabarmen-etakoa da. Ondo landutako harlanduak harmonia eta uniformetasuna emoten deusoz tenpluari, eta leitekeena da bi unetan eraiki izana: aldarea dagoen za-tia, XIII. mendean, eta tenpluaren gai-nerakoa eta portada 1500. urtearen in-guruan. Tenplu honetan deigarriena atea da, gotiko estiloko arku zorrotza dauko eta lau irudixokaz apainduta dago: bi musikariak eta beste biak San Pablo eta San Pedro patroiak. Zutabetxoan kapitelak gerlarien irudiekaz horniduta dagoz.

Hegoaldean beste ate bat dago, arku zo-rrotzekoa hori be, eta bertan dago ermi-tako bataiarria, gaur egun ur bedein-ka-

>>>

San Pedro eta San Pablo ermita gotikoa (XV-XVI. mendeak) Bizkaiko landa-gotikoko tenplurik nabarmenetakoa da

San Pedro eta San Pablo ermita. Ibarri. Muxika. **Argazkia:** GipuzkoaKultura, erreferentzia: AGG-GAO_OA02676

URDAIBAI ZIENTZIA PARKEA

Etorkizunerako eredu bizi eta jasangarria

UGAITZ GAZTELU, Arkitekto Doktorea Ondarearen Egokitze Jasangarrian EHU | EHUko Irakasle.

tutarako harri-ontzi lez erabiltzen dana. Aldarearen inguruan, zutabetxoekaz apaindutako leiho eder bat zabaltzen da kanpoaldera, oso fin landua.

Emitaren barrukaldeak be badaukoz bere berezitasunak. Egurrezko estalpea dauko, zeru motakoa: aldarearen gainean eskegitako egurrezko hauts-babesa, eukaristia babesteko. 1987an zaharberritutako San Pedro eta San Pablaren (XVIII. mendea) irudi barrokoak nabarmentzen dira. Aldarearen buruan dagoen garai bereko Ama Birjinaren irudia hondatuago agertzen da. Barrualdean dagoen elementu zaharrenetako bat K.o-ko I.mendeko kristautasunaren aurreko hilarria da, aldareko mahaiaren aurrean.

San Pedrok eta San Pablok tenpluaren titulartasuna daukee, eta ekainaren 29an ospatzen da bertan jaieguna. Izan be, trazinoaren arabera biak Erroman ejekutau ebezan eguna izan zan: Pedro buruz behera kurtzifikauta, berak hala eskatuta,

eta Pablo burua moztuta. Eleiza katolikoaren liturgiak "apostoluen printzeak" esaten deutse. **UM**

¹ Ibarruri udalerrri independentea izan zan. 1968an Muxika udalerrira anexionau zan.

² Maria José Arana, euskal mojetxeen arloan aditua, laurogei be egon zitekezela jasotzen dau. (TE-SIS_INTXAUSTEGL_JAUREGL_NERE JONE)

³ 1422an sortu eben Arteaga ahiztek, Batzar Nagusien eraikinaren ondoan. 1562ra arte beata bezala bizi izan ziran, urte horretan Hungariako Santa Isabelen babespean harrera egin ondoren isabeldar bezala ezagutzen hasi ziran arte. Eskuz lan egiten eben, ortuak lantzen ebezan eta hezitzaileak ziran. Gainera, batzarkideentzako txokolatea prestatzeaz be arduratzen ziran, batzarkideak Beaterioaren ondoan dagoen Juntetxean batzen ziran bakoitzean. 1618an klausuran sartu ziran, Medina de Pomarreko (Burgos) Santa Klara komentuari ama fundatzaileen etorreragaz batera, Santa Klararen erregelakoak izan ziran. Une horretan, komunitateak Gernikako Santa Klara komentua izena hartu eban.

⁴ Trentoko kontzilioa: 1545 eta 1563 artean Trenton (Italia) egindako Erreforma Protestanteari Eleiza Katolikoak emondako erantzuna. Bere helburua abusua aldatzea, doktrina katolikoa definitzea eta Aita Santuaren autoritatea berrestea izan zan.

⁵ "Y por cuanto los monasterios de monjas, fundados fuera de poblado, están expuestos muchas veces por carecer de toda custodia a robos y otros insultos de hombres facinerosos, cuiden los Obispos y otros superiores, si les pareciere conveniente, de que se trasladen las monjas desde ellos a otros monasterios nuevos o antiguos, que estén dentro de las ciudades, o lugares bien poblados..." López de Ayala, I. El Sacrosanto y Ecu-ménico Concilio de Trento, Paris, Rosa y Bouret liburu-denda, 1857, 371-373orr.

Iturriak

· www.ermitasdebizkaia.com - Eleiz Museoa Bizkaia

· www.muxikakoudala.eus

· "Conventualidad femenina en el país vasco: las franciscanas de vizcaya en la edad moderna" doktore-tesia: Nere Jone Intxaustegi Jauregi- Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Saila- EHU

· "La "iglesia en la ciudad": arte, economía y espiritualidad en Navarra a la luz de las fundaciones conventuales barrocas.



Ibarruriko mojetxearen eraikina. Nabarmenduta, Mesedeetako armarrria. **Argazkia:** Nueva Europa

Garai interesgarrian gaude urdaibaitarrok. Guggenheim Urdaibairen behin betiko geldiaeren ostean, guztion artean ezinbesteko arduraz jokatzeko unea iritsi da.

Berrogei urtez gure habia den paisaia honen biodibertsitatearen babesa sustatzeko asmoz, herritarrok norbanakoen interesak alde batera utzi eta gizarte solidario baten gisa jokatzeko jakin dugula erakutsi dugu. Behar izan denean, denon ongizatea lehenetsi dugu, nahiz eta horrek garapen industrial tradizionalaren motelaldia ekarri duen.

Orain, guztioi dagokigu berriz gure lurraldearen erronka berriak finkatzea. Berau ulertzeko dugun begirada inklusibo eta bateratua berreskuratu beharrean gaude. Horretara natorkizue, bertoko ikerlari, arkitekto eta biztanle gisa. Gizartearen hausnarketa bultzatu nahian.

Urdaibaik ez du paisaia babesteko boka-zioa ezabatuko duen eraldaketa bortitzik behar. Hortik has gaitezen. Aitzitik, pixkanaka eta modu iraunkorrean egokitzea ondo datorkio. Baina guztion artean egindako apustu ausart batek berpizkunde errespetagarri bat ekarri dezake. Urdain bain ditugun baliabide nagusiak balioan jarriko dituen berpizkundera, UNESCO bera eta gu geu hain identifikatuak sentitzen garen balio propio horietatik jaiotzen dena. Elkar ditzagun hauek ezagutza eta talentua sustatzen dituzten jarduerekin. Gure lurralde zabalean dagoeneko kutsatuta ditugun lurrak berreskuratu eta erakitako ondarea, ikerketa- eta irakaskuntza-zentroz hornitzen dituen eredurantz joan gaitezen:

URDAIBAI ZIENTZIA PARKEA. Jasangarritasuna, ezagutza eta talentua erakartzen dituen lurraldea. Ezagutzan

oinarritutako jarduerak bere inguruan ekonomia eta bizikidetzaren errespetagarria sortuko duen eredua. Zientziatik eta akademiatik jaiotzen den eredua, administrazioek bultzatua eta arautua, eta herriak kide izatearen zentzuaz lagundua. Biztanleen alde. Herritik herriarentzat. Eman eta zabal zazu.

Badira ikerketa ugari unibertsitateak hirietan duen eragin positiboak aldarrikatzen dituztenak. Gonbidatu ditzagun beraz bertoko unibertsitate eta ikerketa-zentro publiko zein pribatuak gure lurraldera (EHU, Mondragon zein Deustuko unibertsitatea, FP desberdinak). Hauekin batera nola ez, teknologia-zentroei ere eskua luzatu diezaiogun (Tecnalia, Leartiker, AZTI, Aranzadi etab). Haiek guztiek ere senti dezatela gure erreserba guztion laborategi gisa.

Jaso dezagun asmo hau eta guregana ekarri. Irudika ditzagun gure industriaguneak eta baserriak unibertsitate-kanpus, konferentzia gune, ikasle eta ikerlarien egoitza bihurtuta, eta Gernika eta Bermeo elkargune nagusi- tzat hartuta. Biodibertsitateari, kulturari edo iraunkortasunari lotutako kalitatezko jardueraren ekonomikoa sor dezagun eta hau gure lurralde osoan zehar hedada. Guztiongana.

Eta ez mesedez, ez ditzala administrazioak ezta norbanako interesdun inork ere, mugikortasun arazoak izango genituzkeela mahai gainean jarri. Eredu honek ez du biribilgune berrien beharrik, lehen mailako mugikortasun jasangarri eredu bat baizik. Egin dezagun bada, administrazioetik hasita benetako apustu ausarta bertoko trenaren bikoizketaren alde. Behingoz, belaunaldi berrian asfalto mantentze-lanetara muga dezagun eta eska dezagun guztion artean Bilbo eta Bermeo lotzen dituen "metro" berria, ibilgailu elektrikoak

eta garraio publikoaren babesarekin lurralde osora zabaltzen dena.

Jarduera ekonomikoari buruz aldiz, utz ditzagun Boroakoaren gisako poligono enpresariaren eredua Erkidegoko beste lurraldeentzat, eta erreserban egin dezagun Urdaibaik merezi duen bestelako apustu serio eta ausarta. Baditugu gureak diren hainbat erreferente: Astra kultura-gune bihurtu dugu, Madariaga dorrea biodibertsitatearen eta energia-kudeaketaren eredua da eta Arteagako industria-gunea bertoko hegaztien ezagutzarako Urdaibai Bird Center bihurtu dugu. Denek jakin dute gure ondarea eta ondarrera birmoldatzen, gure balore propioetara lotutako erabileratara egokitzen.

Beraz, irakurle guztioi hausnarketa honetara animatzen zaituztet gure txoko txikitik. Urdaibaik aukera paregabean du lurralde bizi legeaz ulertzeko; hau da, jasangarria eta nazioarteko erreferentzia izateko. Herritarrek, erakundeak eta ezagutza berriz elkarrekin doazen eredu bat jasotzeko. Eskeini diezaiogun belaunaldi berriari eredu jasangarriago bat. Ondarearen eta biodibertsitatearen errespetuan oinarritua dagoen eredua. Bizikidetzaren ezagutza eskutik doazen eredua. **Urdaibaiko Zientzia Parkea.**

Errespetuz eta itxaropenez,

Ugaitz Gaztelu



Manu Leguinecheren oihartzuna Arratzun

Arratzu herria beti egon da harro Manu Leguinechez, herriko Belendiz auzoan jaioetako kazetari ospetsua. Bere herriak seme kutun izentau eban, herriko armarrria eta aginte makila emon eutsozan 2008an, eta bere izena jarri eutson udal liburutegiari. Orain Arratzuk beste omenaldi bat egin deutso eta *Manu Leguineche Udal Frontoia* izena jarri deutso Belendizko frontoi barriari.

Belendiz Arratzuko landa-auzo ederra da, bertako tradizioekaz estuki lotuta. Hemen jaio zan 1941ean Manu Leguineche gerra barriemoile ospetsua. Beti harrotu zan horretaz, eta ez eban inoiz ahaztu bere herria, nahiz eta arima askea, esploratzailea eta bidaiari amorratua izan.

KAZETARITZAN EREDU

Arratzuar honek laster itxi eban bere herria jesuiten barnetegi batera ikastera

joateko. Idazteko eta egia jakiteko grinak punta-puntako kazetari bihurtu eban, eta XX. mendeko krisi eta gatazka beliko latzenetako batzuk ikusi eta haiei ahotza jarri eutsen. Zuzenbidea ikasi eban Deustuko Unibersidadean, filosofia eta letrak Valladoliden eta Madrilén, eta kazetaritzan lizentziau zan Madrilgo Kazetaritza Eskola Ofizialean. Bere ibilbide profesionala Bilboko *Gran Vía* astekarian hasi eban eta *El Norte de Castilla* egunkariko zuzendaria Miguel Delibes zanean, arratzuarak

egunkari horretarako korrespontsal eta barriemoile berezi lez lan egin eban be. *Colpisa* eta *Fax Press* albiste-agentziak sortu ebezan. Gerrako korrespontsal lez bere kronikak Aljeriako iraultzatik edota India eta Pakistanen arteko gerretatik heltzen ziran, baita Vietnam eta Libano, Afganistan, Bangladés edo Nikaragua sandinistatik be. Espainiako Telebistan eta Euskal Telebistan be lan egin eban. 1988an *Memorias* programa zuzendu eta aurkeztu eban. Bertan, euskaldun ospetsuekaz egiten eban berba.

XX. mendeko krisi eta gatazka beliko latzenei ahotza jarri eutsen

Manu Leguinechek honela definitzen eban bere burua: gizon xumea, bere lurrrari lotuta eta lagunaren laguna. Bidaiari eta ameslari, kazetari handi bihurtzeko ametsa bete eban. Espiritu geldituezi-na, bere bizitzan zehar, bere erreportaje



2008an Arratzuko herriak omenaldia egin eutson Leguinecheri, Brihuegan. Argazkia: Nueva Europa

grafikoen bitartez, herrialde urrun eta exotikoen bilakaera erakutsi eban, baita bizipen eta istorioak be, gero bere irakurleen gozamenerako idazten ebazanak. Profesional peto-petoa zan, notizietako pertsonaiekaz egon behar zala uste eban, eguneroko bizitzan bizi diranekaz. Fokutik kanpo egoena begiratzen eban, eta notiziak ustekeri eta berberdi barik kontatzen ebazan. Kazetari miretsia izan zan, lanbidearen hurrengo belaunaldiek jarraitu beharreko adibidea.

UDAL FRONTOIA MANU LEGUINECHE

Belendizeko frontoia azpiegitura modernoa da, inguruan daukon landa-ingurune tradizionalagaz kontrastea egiten dauena. Erabilera askotako ekipamendu lez sortu zan, eta ume-entzako jolas-eremu bat eta lorategi bat barne hartzen dauzen gunee zabal batean integratzen da. Auzoko eta udalerriko jolas- eta kirol-jarduera dinamizatzeko sortutako zerbitzu barri

*Bidaiari eta ameslari,
kazetari handi
bihurtzeko ametsa
bete eban*

>>>



Manu Leguineche Beiruten, Libano 1981. Argazkia: Artxiboa



Manu Leguinecheri egindako alkarrizketa (2008). Argazkia: Nueva Europa



Belendizeko "Manu Leguineche Udal Frontoia" eta plaka. **Argazkia:** Nueva Europa



Belendizeko frontoia azpiegitura modernoa da, inguruan daukon landa-ingurune tradizionalagaz kontrastea egiten dauena. Inguru honetan, Manu Leguinecheren izenak protagonismo berezia hartzen dau

bat da, eta aparkaleku zabal bategaz osatu da. Inguru honetan, Manu Leguinecheren izenak protagonismo berezia hartzen dau. Frontoiak bere izena dauko eta gainera totem batek eta interpretazio-mahai batek "Arkeologia belikoa Urdaibain. Bakerako ikuspegia" izeneko ibilbidea nabarmentzen dabe. Proiektu honek, Leguinechek gatazken kronista izanda egindako ibilbidean oinarrituta, hainbat ibilbide proposatzen dauz Urdaibai-Busturialdean barrena, garrantzi handiko gerra-gertakariak bizi izan ziran tokietatik. Manu Leguinecheren kronikak eta hausnarketak inspirazio iturri eta hari eroaleak dira ibilbide honetan. Horrela Arrolako kastroaren gotorlekua eta Ereñozarreri buruzko istorioak, Ber-

meo eta Mundakako korsarioen erasoei buruzkoak, Bermeon itsasoan izandako gerra napoleonikoak, Elantxoben itsasoan izandako gerra karlistak, Matxixakoko bataila, Gerra Zibila, Gernikako bonbardaketa edota Sollubeko batailari buruzko istorioak azaltzen dira. Eskualdean bizi izandako gertakari historikoei balioa emoteko modu bat, gerra-turismoa Busturialdeko eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako baliabide kultural eta natural bikainetan integratuz.

Manu Leguineche kazetaritza bizi ta kazetaritzagaitik bizi izan zan gaixotasunak lanbidetik aldendu eban arte. Bere azken urteak, 2014an hil zan, Brihuan (Guadalajara) emon ebezan.

Bertan, herri horretako xarmaz eta lasaitasunaz gozatzen eban, baita bizilagunen maitasunaz eta telebistan emondako Bilbao Athletic-eko partida bakoitzaz be, bufanda zuri-gorria jantzita. **UM**

URDAIBAICO GERRARI ETA GERRA-GATAZKEI BURUZKO
IBILBIDE GIDATU APARTA

Azken teknologiarekin. Ibilbideko sentsazio guztiez gozatzeko aukera ematen dizun APP-a.



ARKEOLOGIA BELIKOA Urdaibain Bakerako ikuspegia

Manu Leguineche (Arratzu 1941 – 2014), gerra-korrespontsal ospetsua, inspirazio-iturria da. Bere kronika eta gogoetek laguntzen dute, Arrolako kastroaren gotorlekuari buruzko istorioak, kortsarioen erasoak, Erdi Aroko gatazkak, karlistaldiak, Gernikako bonbardaketa, gerra zibila...

- ✚ Defentsa. Gotorleku baten bizitzea
- ✚ Bakerako inspirazioa
- ✚ Itsasoa. Aberastasun eta gatazka iturri

Informazioa: 634.243.762
visiturdaibai@nuevaeuropa.eus
www.visiturdaibai.com



Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako proiektua.

Itsas kabra,

itsasoko eskorpioia



Scorpaena scrofa. Argazkia: Vicmicallef, (CC BY-SA 4.0)

Itsasoetako "Errege Eskorpioia" dala esan daiteke. Jaki goxo hau ez da egokia kozineru hasibarrientzako, beren arantza pozoitsuak direla eta. Itsas kabra, kabrarroka, eskorpioi gorria... edo bere izen zientifikoaren pean, *Scorpaena scrofa*, sukaldaritzakalidate handiko espeziea da, bere haragi zuri, sendo eta itsaski sabore handikoagaitik.

Itsas kabra eskorpenidua da (orratz edo arantza zorrotzak daukozelako). Euskal kostaldeko itsas hondo harritsu eta hareatsuetan erdi lurperatuta bizi da (bere habitata mendebaldeko Ozeano Atlantikoaren zati handi bat eta Mediterraneo itsasoa hartzen dauz). Arrain bakartia da, harkaitzen artean ezkutatuta eta kamuflatuta bizi da, ia geldirik, 36 URDAIBAI MAGAZINE

besteak beste, igerilari txarra dalako (ez dauko uger egiteko uger-puxikarik). Bere bakardade sorgorrean eta hondoagaz guztiz mimetizatuta, moluskuak eta krustazeoak jaten dauz, eta horreek emoten deutse itsaso- sabore bizia.

Itsas kabraren burua handia da, ahoa handia eta hortzak txikiak. Haginek kosk

baino gehiago arraspau egiten dabe. Izan be, adituek dinoenez, ahotik arrain horri heltzeko modurik onena da, bere hegatsetak arantza pozoisuetatik libratzeko.

Hamaika izen dauko itsas kabrak, ia portuak adina. Arrain gustagarri honi Iparraldean *sakaraila* deitzen deutsoe, Hondarribian *sakarello*, Donostian *krabarroka*

© AZTI. Ilustrazioa Norarte



Bere haragia zuria eta sendoa da, itsaski saborea dauko eta goi sukaldaritzan oso preziatua da

edo *krabarroka*, *itxas kabra* eta *isatza* be esaten deutsoe, eta Zumaian *gomes arria*. Bizkaian *gonbiz*, *bombix*, *antxarrain* eta, bitxia bada be, *gomitxu*² izenez be ezagutzen da.

Beste eskorpenido batzuek nahastau daiteke, baina horreen aldean desbaidindu egiten da matrailazurraren azpian larruazaleko xalflak daukozelako eta neurriengaitik. *Scrofa* bariedadea (itsas kabra) 50 cm luze izan daiteke, eta *porcus* bariedadea (*rascacio* dalakoa) txikiagoa. Ohikoa da arrandegietan *gallinetak* eta *rascacioak* ikustea itsas kabraren identitatea usurpatzen. Nahasteak eta engainuak saihesteko, nahikoa da itsas kabraren buztan biribilduari erreparatzea; gainera, itsas kabrak arantza gehiago dauko gorputzean, eta hiruretan gozoena da.

Espezie honi buruzko informazio biologiko eta ekologiko gitxi dago, batez be ar-

tisau-arrantza dalako nagusi. Espezie urria eta oso preziatua da. Batez be tresmailez harrapatzen da. Euskadin trasmailu³ bidez egiten da 9 eta 36 metro arteko sakonerako harrizko hondoetan. Aparailua egun batean bota eta hurrengo egunean batzen da, gehienez 24 ordutan. Ofizio hau udako hilabeteetan egiten da, apiriletik abuztura. Nahiz eta arrantza garairik biziena maiatzetik garagarriera bitartekoa izan, biak barne. Kirol-arrantzan be ohikoa da, hari eta amuagaz.

EZ ITSUSI EZ TXARRA, IKARAGARRI GOZOA

Bere haragia zuria eta sendoa da eta bere gantz portzentajea oso bajua da. Nutrizio-altxorra da. Proteinen % 19 dauko 100 g-ko, eta aberatsa da mikronutrientetan, esaterako fosforoan eta potasioan. Ontasun eta onura nutrizional horreek guztiak gorabehera, itsas kabra ez zan sukaldaritzan ezagun egin 70eko hamarkadara arte, eta Juan Mari Arzak sukaldariaren eskutik joan zan. Bere kabrarroka

>>>

Harkaitzen artean ezkutatuta eta kamuflatuta bizi da, ia geldirik, moluskuak eta krustazeoak jaten dauz, eta horregaitik dauko itsaso-sabore bizia

pastela goi sukaldaritzako errezeta enblematikoenetako bat da, eta Gabonetako janariaren klasiko bat. **UM**

1 Ziztadarik izanez gero, pozoia neutralizatzea gomendatzen dabe, kaltetutako gorputz atala ur berotan (45º) sartuz. Biktimari konortea galtzea be eragin deikeo. Pozoia bi egun geroago be egon daiteke aktibo, baita animalia hil ondoren be.

2 Gomitxu Gomez arrainagaz lotuta egon leiteke, Gomezen arrainetik eratorria. Dirudienez, gure kostaldeko karabinerua, Gómez izenekoa, arrain hau jatearen oso zalea zan, gainerakoei enpagua emoten eutseen arrain honek.

3 Tresmaila hondora botaten dan mailasare finkoko aparejua da, arlingari (sareak uretan sartu eta eusteko berunak eta kortxoak jartzen diren sokak) berari jositako hiru sare-oihal gainjarritz osatua.

ERREZETA

Kabrarroka pastela, Arzak estiloan

OSAGIAK (8 lagunentzako)

- 500 g itsas kabra (buru barik)
- 8 arrautza
- 250 ml esne-gain likidoa
- 250 ml tomate prijidu
- Azenario bat
- 1 porru
- Gurin-intxaur 1
- Ogi birrindu koilarakada 1
- Piperbaltza
- Gatza

Egosi kazola batean azenarioa eta porrua zatituta, gatz apur bategaz. Gehitu itsas kabra buru barik, tapau eta egosi 7 minutuz. Ura atera arrainari eta kendu larru eta arantza guztiak. (Gorde salda beste errezeta batzuetarako).

Irabiau arrautzak esnegain likidoagaz, tomate prijiduagaz eta arrain garbiagaz batera, nahaste homogeneoa lortu arte. (Jatorrizko errezetak arrain-zatitxoak ikustea gomendatzen dau). Gatza eta piperra emon nahasteari. Koipeztu molde bat gurinagaz eta gehitu ogi birrindua. Eragin, ogi birrindua ondo itsatsita gera daiten. Berotu labea 225 °C-tan. Bota nahastea moldean eta jarri azpil batean uragaz. Ordubete eta 15 minutuz ur-beroaldi bat emon, 225 °C-ra. Kendu labetik, hoztu eta moldetik atera. Serbidu maionesa saltsagaz.




- Iturriak:
- Urdaibaiko Gida Zientifikoa. EHU
 - Bizkaiko golkoan euskal ontzidiak harrapatutako espezien (komertzial eta ez komertzial) gidaliburu faunistikoa. AZTI-Tecnalia
 - Urpeko ibilaldia Euskal Kostaldean zehar. Kostaldeko espezie arruntenen gida praktikoa. AZTI-Tecnalia
 - Sin mala espina. Guía de consumo responsable de pescado y marisco. Lydia Chaparro
 - Peces y Mariscos del mercado. Roberto Lotina Benguria
 - www.gastronomica.com

Arrolagune
Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroa

ORAIN 2300 URTEKO URDAIBAICO

BIZITZA EZAGUTUKO DUZU

IGANDEETAN
10:00 - 14:00



Loiola Auzoa 4,
Arratzu (Bizkaia)

"JANARIA EZ DA BOTATZEN"

Eta, hala ere, xahuketaren % 30 platerean uzten ditugun hondarretatik dator.

Ez utzi janaririk platerean, eta lagundu elikagaiak alferrik ez galtzen.

Xahuketa nola prebenitu eta nola murriztu jakiteko, informa zaitez hemen:
zerodespilfarro.eus



JANARIA
EZ
DA
BOTATZEN.



SALIKORNIA, padurako landare-altxorra

Gazitasun handiko lurretan hazten da, taila txikikoa da eta ingurumen-, gastronomia- eta sendabelar-balioak daukoz. Halanda be, kalteberatzat jotzen da, eta, beraz, lehentasunezkoa da babestea.



Salicornia ramosissima. Argazkia: Lisia Lopes, CC BY-NC 4.0



Salikorniak onura handiak ekarten deusoz ekosistemari: oxigenoa sortu, kostaldeko lurrak babestu edota kostaldeko uraren kalidadea hobetu

Salicornia ramosissima Muruetan. Argazkia: Nueva Europa

Padurek habitat berezia osatzen dabe estuarioan, eta ur gazaren eta itsasoko ur gaziaren arteko lotura-eremuak dira. Ingurune horretan, bertako landaredia gazitasun-mailaren eta eremuko substratuaren menpe dago batez be. Landare-komunidadeak aldatu egiten dira estuarioaren eremuaren arabera, eta Urdaibain, paduraren behealdean, Salikornia dago. Itsasgoran erabat urpean ez dagoen estuario eta kostalde baxuetan hazten da. Itsasgorak baino gorago dagoen eremuetan, ihitzekaz kontaktuan be. Gatzarekiko tolerantzia handia dauko, horregaitik, beste landare batzuk lehortzen diran lekuan biziraun daike. Horri landare haloftoa izatea esaten jako.

Salikorniak onura handiak ekarten deusoz ekosistemari, esaterako oxigenoa sortzea eta kostaldeko lurrak babestu

eta egonkortzea; izan be, bere sustraiek lagundu egiten dabe itsasaldi eta korronteek eragindako higadurari aurrea hartzen. Gainera, ur gaziak iragazten laguntzen dabe, kostaldeko uraren kalidadea hobetzen lagunduz. Landare honek, beste izaki bizidunentzako habitatak erakitzen laguntzen dau, eta basa-fauna, hegazti migratzaileak edota arrain zein krustazeoentzako janari eta babeslekuak sortzen dauz.

ESPEZIE KALTEBERA

Landare hau Euskal Autonomia Erkidegoko 3 estuarioetan baino ez dago, guztiak Bizkaian: Urdaibain, Barbadungo itsasadarrean eta Butroe itsasadarrean. Bere mehatxu nagusia bere habitataren urritasuna eta hauskortasuna da, bai gizakien ekintzen aurrean, bai hondamendi naturalen ondorioengaitik, esaterako erreka-deengaitik.

Espezie hau oso mugatua dago, marea-uholdeak ezin daudelako gehiegizkoa izan behar, baina ezta urria be, eta hondar asko daukeen substratuak behar dauzelako. Bi faktore horreetakoren bat nabarmen aldatzen dauen edozein eraginak arrisku larrian jar leike espezie horren biziraupena euskal kostaldean.

Espezie Mehatxatuen Euskal Autonomi Erkidegoko Katalogoan (Eusko Jaur-larritza) kalteberatzat katalogatutako landarea da. Kategoriatu kalteberak honakoa esan gura dau: *"etorkizun hurbilean aurreko kategoriara pasatzeko arriskua dauke, kontrako faktoreak zuzentzen ez badira"*. Horrek esan gura dau debekatuta dagoela *"landare hauek suntsitu, atalen bat moztu, osorik moztu edo errotik atera eta habitataren suntsipenera daraman baimenik bako edozein ekintza egitea"*.

>>>

bai eta "bizirik edo hilda euki, naturalizau, garraiatu, saldu, erakutsi, inportau edo esportatzea, eta baita propagulu edo landare-atal eta hazien, polenaren eta esporen bilketa be, erregelamenduak xedatutako kasuetan izan ezean".

Salikornia
jaboiak eta beira
fabrikatzera bideratu
zan antxinan,
eta gaur egun
elikadura-baliabide
garrantzitsua da

Salikornia landare mamintsua da eta beste izen batzuek bezala ezagutzen da: San Pedro landarea, itsas-zainzuria edo berdar gazi. T xenopodiazeen familiakoa da eta hainbat mota ezagutzen dira. Urdai-bain *Salicornia ramosissima* bariedadea hazten da. Mota hau adarkadura gitxiko landare berde disdiratsua da eta loreal-dia eta gero, gorri-gorria, kolore gorri ilun ikusgarria hartuz; 15-30 cm-ko altuera euki ahal dau, eta adarrak 5-20 mm-koak. Loreak zimatan batzen dira, beti hiruko taldeetan; espezie horretan, erdiko lorea askoz zabalagoa da, eta alboetako bi loreak baino handiagoa.

Euskadin dogun genero horren espeziea beranduago loratzen da, urrian, eta azaroaren erdialdera zimeltzen da.

PROPIEDAD E ASKO

Gauza askotarako erabiltzen dan landarea da eta ondorio onuragarri asko daukoz. Urte askotan, salikornia jaboiak eta beira fabrikatzera bideratu zan, eta gaur egun elikadura-baliabide garrantzitsua da. Izan be, haziak olioak ateratzeko erabil daitezke eta adar haragitsuak goi-sukaldaritza-ren osagai moduan erabiltzen dira. Erre-balorizazio horren ondorioz, gatz-fabrika askotan batze- eta laborantza-prozesu



Salicornia ramosissima Kanalan. Argazkia: Nueva Europa

bat egin da. Salikorniaren zurtoin samur eta kurruskariet zapore gazia daukee eta entsaladatan gordinik edo egosita jan daitezkeez.

Baina bere erabilera gastronomikoetatik haratago, osasunerako onak diran landare honen propietadeak nabarmetzen dira. Andaluziako ospitale batean oraintsu egindako ikerketa batek egiaztatu dauenez, salikorniak iktusa prebenitzen laguntzen dau eta istripu zerebrobaskularren ondoren, bizkortze motore eta kognitiboa erraztu daike. Ikertzaileen arabera, landare horren estraktua tratamenduan sartzen daben pazienteek azkarrago ibiltzea lortzen dabe, eta distantzia handiagoak egiten dabez balorazino-probetan. Beraz, salikornia "osun zerebrala eta baskularra zaintzeko etorkizun handiko nutrizino-estrategia naturala da". **UM**

1 Izaera administratiboko erregistro publikoa da, Euskadiko Natura Kontserbatzeko 16/94 Legez sortua.

Iturriak:

- Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema.
- Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa.
- Bizkaia 21, Bizkaiko Foru Aldundia.



AUTORE SUKALDARITZA
ETA PRODUKTUARI
KULTUA URDAIBAICO
BIOSFERA ERRESERBAN

Erreserbak:
www.kanalabeach.eus
+34 94 402 53 69



688 638 421
info@tourdaibai.com

Busturiak "Hradištko. Txikoria belarrak loratzen ez zirenean" erakusketa inaugurau eban Madrilgo Euskal Etxean

Busturiko Udala etorkizuna eraikitze lanean ari da, eta horren barruan sartzen da memoria birgaitzeko, *"Busturia Gogoan. Memoriaren Lekuko"* ikerketa historikoaren ekimena. Testuinguru honetan kokatzen da Madrilgo Euskal Etxean inaugurau zan *"Hradištko. Txikoria belarrak loratzen ez zirenean"* izeneko erakusketa. Erakusketa Busturiko Udalak sustatua dago Gogora Institutuagaz (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua) eta Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkaritza Nagusiagaz lankidetzan.

Erakusketak Hradischko, Txekiar Errepublikako Hradištko herriko kontzentrazino eta sarraski eremuan bizi izan ziranen irudiak eta testigantzak, balio historiko handiko kontakizun eta argazkiak batzen dauz. Panelek presoeroimenari eta kontzentrazino-esparruko bizimoduaren gogortasunari balioa emoten deusee, eta Busturiko kaleetan bertan jarritako elementuen erreplikak be dagoz. Memoria historikoko adituek eta bi herrialdeetako biktimen senideek parte hartu dabe proiektuan. **UM**



Sare sozialak Euskadiko gazteen informazino-iturri nagusi lez sendotzen dira



Ongizate, Gazteria eta Errenta Demografikoaren Sailak "Gazteria, sare sozialak eta informazinoa. Euskadi 2025" txostena aurkeztu dau. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek sare sozialak zelan erabiltzen dabezen aztertzen dau, eta azterlanaren arabera, EAEko gazteen % 98,2k sare sozialen bat erabiltzen dau egunero, eta % 71,7 hiru plataformara edo gehiagora konektatzen da egunero, mezularitza-aplikazioak kontuan hartu barik. Spotify edo musika entzuteko beste aplikazio batzuk (% 78,2), Instagram (% 76,8), YouTube (% 54,8) eta TikTok (% 44,6) dira egunero gehien erabiltzen diran sareak. Gazteek mundurako

leiho nagusi bihurtu dabez sareak, baina, aldi berean, oso ondo ezagutzen dabez arriskuak: desinformazinoa, ziberjazarpena edo osasun mentalean daukeen eragina. Datuek adierazten dabe sareetan gaitzespen-mezuekiko edo mezu kritikoekiko esposizinoa ez datorrela zuzenean lotuta jarrera horiekiko atxikimenduagaz. Hau da, ez da ikusten esposizino handiagoak diskurtso horiekiko atxikimendu handiagoa dakarrenik *"Horregaitik da hain garrantzitsua erabilera horri heziketa digital kritikoagaz eta babes-bermeekaz laguntzea"*, nabarmendu dau Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariak. **UM**

Urdaibaik Turismo Jasangarriaren Europako Gutunagaz konpromisoa barritzau dau

Urdaibai Biosfera Erreserbak 2025-2029 aldirako Turismo Jasangarriaren Europako Gutunaren (TJEG) akreditazinoa barritzau dau, EUROPARC Federazioaren kanpo-auditoria prozesua arrakastaz gainditu ondoren. EUROPARC Europako parke eta erreserba naturalen

sarea da, eta natura zein kultura ondarearen jasangarritasuna, lankidetzeta eta kontserbazinoa bultzatzen dauz. Akreditazioaren barritzeak aintzat hartzen dau administrazioek, enpresek eta toki-erakundeek turismo jasangarri, parte-hartzaile eta inklusiboaren alde alkarregaz egindako lana. **UM**

Azaroaren 25eko EUDELen Adierazpenak indarkeria matxistarekiko "tokiko komundadearen" egitekoa indartzea proposatu dau

Euskadiko Udalen Alkarteak "Indarkeria matxistak beldurrezko eta lotsazko ingurunea" sortzen dauela azpimarratu dau. Eta gogorarazi dau egoera horreek areagotu egiten dirala isolatuago egon daitekezen emakumeen artean, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatueta dagozenak, desgaitasuna daukeen emakumeak, emakume atzerritarrak eta bestelako baldintza bereizleak daukozenak. EUDELe azpimarratu dau komundadeek —auzoak, lagunek, kuadrillak— goiz ohartaraz daikeela indarkeria-egoera gertatzen ari dala. Sororitate zein hurbileko laguntza funtsezkoak dirala indarkeria matxista jasaten daben emakumeei laguntzeko. 2024an, Euskadin,



15 eta 29 urte bitarteko 1.641 emakumek salaketaren bat jarri eban emakumeen aurkako indarkeriagaitik, azken urteetako tasarik altuena. **UM**

Alemaniano presidenteak Gernikako "krimen basatia"ren erantzukizuna onartu dau

Gernika-Lumo barriro be memoriaren erdigunea izan da. Bertan batu ziran Frank-Walter Steinmeier Alemaniano presidentea, Felipe VI. erregea, Imanol Pradales lehendakaria eta Gernika-Lumoko alkate Jose Maria Gorroño estatu-ekitaldian. Bisitak aparteko garrantzia izan dau, ez bakarrik Alemaniano estatuburu bat Gernika-Lumora datorren lehen aldia izan dalako, baizik eta agintariak bere herriaren izenean parkamena eskatu ebalako

1937ko bonbardaketagaitik, balio historiko handiko keinua. Zalloko hilerrian egindako omenaldi hunkigarri batean, sei minutuz, erakundeetako ordezkariak isilean entzun eben Pablo Sorozabalen Gernika kantata, bonbardaketaren lekuko izandako Crucita Etxabe eta Maria del Carmen Aguirre agurtu aurretik. Ekitaldiaren ondoren, Steinmeierrek eta Felipe VI.ak, Imanol Pradales lehendakariak eta herriko alkateak lagun-duta, Bakearen Museoa bisitau eben. **UM**

Bizkaiak Europako museo-ekitaldi ospetsuena hartuko dau 2026an

Euskararen Etxea izango da nazioarteko ekitaldi honen anfitrioi 2026an. *European Museum of the Year Awards* (EMYA) alkarteko kideak batuko dira bertan. Europako museo-ekitaldi ospetsuena da eta Bilboko Euskalduna Jauregian egingo da 2026ko ekainaren 10etik 14ra. Museoen sektoreko profesionalentzako eta kultur eragileentzako hiru eguneko biltzarra izango da. Era berean, sari-banaketa ekitaldia egingo da eta Bizkaian be hainbat jarduera kultural osagarri antolatuko dira. Euskararen Etxea, Bilboko San Inazio auzoan kokatua, 2004an sortu eben Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. **UM**





TRANSPORTE, ALMACENAJE, DISTRIBUCIÓN...

LOGÍSTICA

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika – Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es




Arrien Optika



Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es



Etorkizun garbiago bat izateko ingurumeneko soluzioak




Euskararen Nazioarteko eguna 2025. Adierazpena



*Euskarak bide luzea egin du.
Luzeena, agian, Europa zaharrean.
Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau,
hazi eta berritzen ari da.*

*Zein da sekretua?
Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur
arte ekarri duena?
Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta
ahalegin.
Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi,
gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.*

*Debekuen aurrean, eutsi genuen.
Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.
Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen
hizkuntza izatera pasa da.*

*Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.
Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.
Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.*

*Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea,
zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.
Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.
Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.*

*Horregatik, unea da.
Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide
berriak jorratzeko unea.
Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik
erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune
erosoak sortzeko unea.
Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa
indartzeko unea.*

*Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.
Erabilera sustatuko duten ingurune biziak zaindu
eta berriak irabazteko unea.
Euskararen biziberritze-prozesuari segurtasuna
emateko indarrak biltzeko eta urrats berriak eta
ausartak egiteko unea.*

*Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.
Eta prest gaude!
Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.
Elkarrekin egiteko.*

*Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz
bizi eta biziarazi dutenei.
Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak
oraindik ere zuen beharra du.
Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio
positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,
Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.*

*Euskara da!
Guztiontzat da.
Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.
Batzen gaituen hizkuntza bat.
Elkar ulertzeko gonbidapen bat.*

*Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.
Eta euskararekin, edonori.
Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko
ditugu, denon artean.
Hazi emankorrakoak ditugu lur berria ereiteko.*

*Atzeak erakuts diezagula aurea nola dantzatu.
Norberetik hasita egingo dugu bidea.
Guztion baitan baitago euskararen jauzia.
Zugan, nigan, gugan .*

ZORIONAK



Gabon Zoriontsuak eta
Urte Barrian Munduan Bakea izan daigun

BIZKAIKO MERKATARITZA

OSO PRO

PROAKTIBOA,
PROFESIONALA ETA
OSO GERTUKOA



Mikel Achaerandio
BIZIKLETA DENDA * GETXO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral